El objetivo de este acuerdo es que las decenas de miles de fotos, documentos y material deportivo generado a lo largo de más de 100 años de historia por alpinistas, escaladores, esquiadores y mendizales puedan ser conservados, y no se pierdan con el paso del tiempo. El objetivo es que se conviertan en un patrimonio para el país y sean custodiados y disfrutados por el ciudadano y trasmitidos a las nuevas generaciones.

EMMOA (Fundación Museo Vasco de la Montaña-Euskal Mendizaletasunaren Museoa)

Cuando la trayectoria del montañismo vasco ha cumplido más de un siglo, la progresiva desaparición de las generaciones pioneras ha tenido como consecuencia una merma importante de este patrimonio, como pueden ser botas, mochilas, cuerdas, crampones, piolets, brújulas, documentos, que eran ilustrativos de esta actividad a través del tiempo.

Todo este material se ha ido perdiendo ante la inexistencia de un organismo que asumiera la responsabilidad de su gestión y conservación. Únicamente algunas iniciativas particulares han hecho posible que una pequeña parte de esa memoria histórica se haya salvado.

Conscientes del riesgo que corre este patrimonio, y de la relevancia social que tiene el deporte alpino en Euskal Herria, un colectivo de montañeros, con el aval de Euskal Mendizale Federazioa, ha promovido la creación de EMMOA (Fundación Museo Vasco de la Montaña-Euskal Mendizaletasunaren Museoa).

ARANZADI-EMMOA

La Sociedad de Ciencias Aranzadi en sus 70 años de actividad se ha especializado en la investigación y salvaguarda de nuestra memoria histórica, de este modo, el montañismo vasco se beneficiará de su experiencia. A través de este convenio Aranzadi ofrece su know how y cederá gratuitamente los soportes de sus bases de datos para la organización de la biblioteca, archivo, fototeca y colecciones que ha comenzado a crear EMMOA. También cederá de forma gratuita el uso de las instalaciones que precise para el desarrollo de sus actividades.

Es preciso recordar la estrecha vinculación que Aranzadi ha tenido desde sus orígenes con la montaña vasca, ya que la Sociedad científica fue fundada en los años 1945-1947 en el refugio de montaña de Igaratza en la sierra de Aralar. Aranzadi ha realizado infinidad de investigaciones del patrimonio arqueológico y medioambiental situado en la montaña. Ambas entidades entienden la montaña en toda su dimensión deportiva y como contenedora de la mayor parte de nuestro patrimonio natural y cultural.

Emmoa fundazioko lehendakaria, Luis Ignacio Domingo Uriarte eta Jokin Otamendi, Aranzadiko lehendakariordea.

ARANZADIK ETA EMMOA FUNDAZIOAK HITZARMENA SINATU DUTE MENDIZALETASUNAREN MEMORIA BABESTEKO ASMOZ

Aranzadik, memoria historikoan espezializatuta dagoenak, euskal mendizaletasunarekin akordio estrategikoa hitzartu du Euskal Mendizaleen Federazioak babesten duen EMMOA Fundazioarekin (Euskal Mendizaletasunaren Museoa).

Hitzarmen honen helburua 100 urtez baino gehiagoz alpinistek, eskalatzaileek, eskiatzaileek eta mendizaleek sortutako milaka argazki, dokumentu eta kirol-material gorde eta herritarrek kontsultatu ahal izateko moduan jarriko dituzte, Aranzadik Intxaurrondo auzoan izango duen egoitza berrian.

EMMOA (Fundación Museo Vasco de la Montaña-Euskal Mendizaletasunaren Museoa)

Euskal mendizaletasunaren ibilbideak mende betetik gora egin duelarik, Euskal Herrian zaletasun hori bideratu zuten lehenengo belaunaldiak, bizi legez, pixkanaka-pixkanaka desagertzen joan dira, era berean beren jardueretan erabiltzen zituzten tresnak. Garai desberdinetako botak, motxilak, sokak, kranpoiak, pioletak, agiriak… gure mendizaletasunaren eboluzioaren berri ematen zutenak, galtzen joan dira.

Pieza horien kudeaketaz eta kontserbazioaz arduratuko zen inolako erakunderik ez zegoen eta zenbait ekimen partikularrei esker, denboraren higaduratik oroimen historiko horren zati txiki bat salbatu da.

Ondare horrek desagertze-arriskuan ikusi eta mendizaletasunak Euskal Herrian duen garrantzi soziala kontutan hartuta, mendizale kolektibo batek, Euskal Mendi Federaziaren bermearekin, EMMOA Fundazioaren (Fundación del Museo Vasco de la Montaña- Euskal Mendizaletasunaren Museoaren) sorkuntza bultzatu du.

ARANZADI-EMMOA

Aranzadi Zientzia Elkarteak 70 urte daramatza gure memoria historikoa ikertzen eta harreman estua izan du euskal mendizaletasunaren munduarekin. Hitzarmen honen bitartez EMMOAk dituen liburu, artxibo, fototeka eta bildumak sailkatzeko baliabide teknikoak eskainiko dizkio Aranzadik mendizaleei, elkarte zientifikoaren esperientzia eta know how-a partekatzeko hain zuzen ere. Honez gain, Aranzadik bere azpiegituraren barne espazio bat egokituko du fundazioaren ekimenak bultzatzeko.

Aranzadik bere jatorritik mendiarekin betidanik izan duen lotura kontutan hartu behar da. Elkartea 1945-1947 urteetan Aralarreko Igaratza aterpetxean sortu zen eta jorratzen dituen ikerketa guztiek mendian kokatuak dauden ondare arkeologikoekin eta ingurumenarekin dute zerikusia.

Bi erakunde hauek mendia bere bi dimentsioetan ulertzen dute, bai kirol dimentsioan eta baita ondare kultural eta naturalaren babesleku gisa.

ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEKO ARTXIBO OROKORRA

ARCHIVO GENERAL DE LA SOCIEDAD DE CIENCIAS ARANZADI

1947. urtean elkartea eratu zenetik sortarazi diren Elkartearen dokumentu-fondo guztiak osatuta daude Aranzadi Zientzia Elkarteko Artxiboa, baita Elkartean gordailaturiko edo dohaintza modura emandako beste fondo batzuk ere. Dokumentu horiek zaindu, antolatu, deskribatu, gorde eta ezagutzera ematea gure funtsezko zeregina da. Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuari eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari esker, hainbat proiektu gauzatzen ari da Aranzadi Zientzia Elkartea.

El Archivo General de la Sociedad de Ciencias Aranzadi está formado por los fondos documentales generados desde su creación en 1947 y por otros fondos depositados o donados a la Sociedad. Es nuestra labor fundamental su custodia, organización, descripción, conservación y difusión. Gracias al departamento de Cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa, y al departamento de Cultura de Gobierno Vasco se han podido realizar diversos proyectos archivísticos.

DOKUMENTAZIO-FONDOAK

ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEKO FONDOA

Artxiboko zeregin nagusia Elkarteak sortarazitako dokumentazioa katalogatzea izan da. Katalogatu den dokumentaziorik gehiena Elkarteko administraziotik eta bertako sailetatik egunez egun sortaraziz doan dokumentazioarekin bat dator. Gaur egun, katalogaturiko dokumentazioa instalatzeko 760 unitate ditugu (106 m.l) 6.700 espediente guztira, horietatik 300 aurtengo 2016 urte honetan bertan katalogatuak, eta horren ondorioz, dokumentazioak 6 m.l.ko gorakada izan du.

BESTE FONDOAK

2016an Elosegi Fondoa antolatu eta digitalizatzeko lanekin aurrera jarraitu dugu hura zabaldu nahian, eta Jesus Elosegiren "Aralar Mendian" egunerokoetako Datu Base bat digitalizatu eta inplementatzeko lanak bukatu ditugu.

Digitalizatu dugun azken egunerokoaz zerbait azpimarratzekotan, Desaoko aterpea da, Aralarrera egindako txangorik gehienek hura baitzuten jomuga. Besteak beste, aterpea eraikitzeko lanak nola zihoazen azaltzen digu.

FONDOS DOCUMENTALES

FONDO SOCIEDAD DE CIENCIAS ARANZADI

Una de las tareas prioritarias del Archivo es la catalogación de la documentación que Aranzadi genera. La mayoría de la documentación catalogada procede de los distintos departamentos y del área administrativa. Hoy en día contamos con unas 760 unidades de instalación (106 metros lineales) que contienen unos 6.700 expedientes, de los cuales 300 han sido catalogados durante este año 2016 lo que ha supuesto un incremento de aproximadamente 6 m.l. de documentación ya catalogada y disponible para su consulta.

OTROS FONDOS

En el 2016 hemos continuado con las tareas de organización y digitalización del Fondo Elósegui para su difusión y se han concluido las tareas de digitalización e implementación de una BD de los diarios de Jesús Elosegui "Aralar Mendian".

Del último diario digitalizado podemos destacar que una gran mayoría de las excursiones realizadas a Aralar tiene como punto clave el refugio de Desao, inaugurado en 1945. Entre otras cosas nos ilustra las obras que se iban realizando en el refugio.







Notas y fotografías realizadas por Jesús Elósegui.
1-2. Obras en el refugio de Desao, en Aralar. 1945/09/11
3-5. Exploración de la cueva de Troskaeta realizada por miembros de Aranzadi, entre ellos Manuel Laborde y Maximo Ruiz de Gaona. 1946/04/28.
6-7. Exploración de la "Laguna Deseada" dentro de la cueva de Troskaeta. 1947/08/03.

Hirugarren eguneroko honek, Troskaetako haitzuloan egindako esplorazioen berri ere ematen digu; bertan, haitzuloetako hartzaren hainbat hezur aurkitu zituzten, eta aurrerago Donostiako San Telmo Museoan muntatu. Esplorazio hauetako bi bereziki nabarmendu nahi ditugu.

Bata 1946ko apirilean izan zen. Badirudi lehen esplorazioetako bat izan zela, eta Aranzadi Zientzia Elkartearen egunen bateko sortzaileak bateratu ziren han: Jesus Elosegi, Reyes Corcostegui, Manuel Laborde, aita Maximo Ruiz de Gaona, Joaquin Gomez de Llarena, e.a.

Nabarmendu nahi dugun bigarren esplorazioa 1947ko abuztuan egindakoa da; oraingoan, Troskaetako haitzuloan barna sartu eta "Urmael irrikatua" esploratu zuten.

ARGAZKI BILDUMAK

Aranzadi Zientzia Elkarteak garrantzi handiko Argazki Fondoak ditu eta argazki-fondo ororen helburuak kontserbazioa eta zabalkundea dira. Premisa horiek helburutzat harturik, Aranzadi Zientzia Elkartea bere argazki-fondoen antolaketan buru-belarri murgildurik dago, bere fondoak digitalizatu eta katalogatzeko lanei eta gordeta dauden eta iristen jarraitzen duten argazki-materialak zaintzeko planei lehentasuna ematen zaielarik.

Aurten bazkideek 1500 irudi inguru utzi dituzte Elkarteko Artxiboan. Gainerako %90 jada gure eskuetan daude formatu digitalean eta euskarri optikoan gorde dira. Gaur egun, irudien zati txiki bat baino ez dago deskribatuta dagokion datu-basean. 2016an batez ere argazki-fondoak bildu, antolatu eta digitalizatzen aritu gara horiek geroago ezagutzera emateko.

ZERBITZUAK

KONTSULTAK

Aranzadi Zientzia Elkarteko Artxiboak bere fondoak eta dokumentuak kontsultatzeko zerbitzua eskaintzen du eta horretarako badu prozedura bat, Aranzadiren web gunetik erabiltzaile guztien eskura jarrita jada (www.aranzadi.eus).

2016an kontsulta gehien egin dituena (%48) administrazio-atala izan da, atzetik hainbat sailek jarraikia portzentaje altu samarrarekin: Antropologia saila (%14), Botanika (9%), Herpetologia saila (7%), Arkeologia Historikoa (%5), Entomologia saila (1%) edo Etnografia (1%). 2016. urtean kanpoko kontsultek izan duten %15. Kanpoko eragileek gehien egiten dituzten kontsultak, berriz, argazkiei eta ondare-txostenei buruzkoak dira, eta urtez urte gero eta gehiago dira mota horretako kontsultak.

En este tercer diario también nos deja constancia Jesús Elósegi de las exploraciones llevadas a cabo en la cueva de Troskaeta, donde encontraron restos de oso cavernario que luego se montarían en el Museo de San Telmo de Donostia. De estas exploraciones podemos destacar dos de ellas.

Una en abril de 1946, que parece que fue una de las primeras exploraciones, y en la que se reunieron los futuros fundadores de la Sociedad de Ciencias Aranzadi: Jesús Elósegui, Reyes Corcostegui, Manuel Laborde, padre Máximo Ruiz de Gaona, Joaquín Gómez de Llarena, etc..

La segunda exploración que destacamos es la realizada en agosto de 1947 y que supone la exploración dentro de la cueva de Troskaeta de "La laguna deseada".

FONDOS FOTOGRÁFICOS

La Sociedad de Ciencias Aranzadi cuenta con unos importantes Fondos Fotográficos y los objetivos de todo fondo fotográfico son la conservación y la difusión. Tomando estas premisas como objetivos, la Sociedad de Ciencias Aranzadi se encuentra inmersa en pleno proceso de organización de sus fondos fotográficos, ocupando un lugar prioritario las labores de digitalización y catalogación digital de los mismos así como los planes de conservación de los materiales fotográficos custodiados.

Este año los socios han depositado en el Archivo de la Sociedad cerca de 1500 imágenes. Más del 90 % de ellas están en formato digital. Hoy en día, sólo una pequeña parte de estas imágenes cuenta con descripción en su base de datos.

En 2016 se ha seguido trabajando en la recogida, organización y digitalización de diversos fondos fotográficos para poder difundirlos.

SERVICIOS

CONSULTAS

El servicio de Archivo de la Sociedad de Ciencias Aranzadi ofrece la consulta de sus fondos y documentos y para ello cuenta con un procedimiento ya accesible a todos los usuarios desde la página web de Aranzadi. (www.aranzadi.eus).

La mayoría de las consultas recibidas en 2016 proceden del área Administrativa (48%) seguidas por las realizadas por otros departamentos: Antropologia (14%), Botánica (9%), Herpetologia (7%), Arqueologia Historica 5%), Entomologia (1%) o Etnografia (1%). En 2016 las consultas externas han supuesto un 15 % del total de las consultas recibidas. La mayoría de estas consultas se corresponden con consultas de fotografías e informes de carácter patrimonial.



1-"Jokoak" erakusketaren kartela. Egilea: San Telmo Museoa.

2-"Jokoak" erakusketan erabilitako argazki bat Tolosako zezen-plazako Idi-apustu bati buruz. 1936/04/13. Egilea: Jesus Elosegi Irazusta

3- "Ricardo Martín: argazkilaria eta ikuslea" erakusketarako gonbita.

4- "Ricardo Martín" erakusketan erabilitako argazkia; Rafael Pikabea agertzen da Le Belloy gazteluan. 1939/04/09. Egilea: Jesus Elosegi Irazusta.

5- "Eresoinka" erakusketarako gonbita. Egilea: DSS2016 – Inesfera.

6- Estépar aldean (Burgos) gorpuak lurpetik ateratzeko lanak: 2014. Egilea: Oscar Rodríguez

7- "Bakearen Milia" erakusketaren kartela. Egilea: DSS2016 – K6.

8- Bakeolak antolatu duen "Oroimena Bizirik" erakusketa.

9- Jean Pelletier-rek Ondarretako kartzelan egindako mahai-jokoei buruzko marrazkia. Egilea: Jean Pelletier.

"Juan Mari Pallín" liburuaren aurkezpenerako gonbita.

Invitación a la presentación del libro "Juan Mari Pallín".

KOPIAK

Aranzadiren Artxibo zerbitzuak argazki-fondoen kopiak eskuratzeko aukera eskaintzen dio erabiltzaileari. Kopiak eskatzeko prozedura bat landu da eta erabiltzaileen eskura dago gure web gunean(www.aranzadi.eus).

2016an Jesus Elosegi Irazusta argazki-fondoak kopia-eskaera gehien jaso ditu, urtero bezala. Kopia hauek hainbat erakusketatan erabili dira; esaterako, San Telmo Museoak "Jokoak" izeneko euskal kirolari buruzko erakusketa estreinatu du, 2016ko uztailean.

Kutxa Kuboak Ricardo Martin argazkilariari buruzko erakusketa bat antolatu zuen eta fondo Elosegin dagoen Rafael Pikabearen argazki bat erabili zuen bere katalogoan. Rafael Pikabea, Oiartzunen jaioa eta politikaria. Gerra Zibilean, Euzkadiko Gobernuaren ordezkaria izan zen Paris hiriburuan.

Beste adibide bat da DSS2016 Fundazioak Eresoinkari buruzko antolatu zuen erakusketa. Panelak egiteko Jesus Elosegiren ia 400 argazki erabili zituen.

Aurten Eresoinkari buruzko argazkiak erabili zituen ere dokumentala bat egiteko, "Voces de papel". Dokumentala Zinemaldian 2016ko irailaren 20an lehen aldiz eman zuen eta ETB2 urriaren 9an.

DSS2016 Fundazioak Aranzadiri Gerra Zibilako hilobei buruzko argazki bat "Bakearen Milia" izeneko erakusketa erabiltzeko eskatu zion eta horretarako aukeratu zuen Oscar Rodriguezek Estepar indusketan egindako argazkia.

Beste adibide bat da Bakeolak "Oroimena bizirik" izeneko erakusketarako eskatu zizkion Jean Pelletier fondoren argazkiak.

DIGITALIZAZIOA

Aranzadi Zientzia Elkarteko Artxibategiak argazkiak digitalizatzeko zerbitzua ere jartzen du erabiltzaileen eskura. Artxibategiak eskaintzen duen zerbitzu hori Aranzadirekin edo gure sailetako ikerketa-esparruekin zerikusia duten argazki -fondoak dituzten erabiltzaile guztiei zuzenduta dago. Argazkiak digitalizatzeko interesa dutenek aukera hauek dituzte: argazkiak aldi baterako utz ditzakete artxibategian edo Aranzadi Zientzia Elkarteko Artxibategiari eman diezazkiokete, hark zaindu eta babestu ditzan. Edozein aukera hautatuta ere, interesdunak digitalizatutako materialaren kopia digitala eta materialari dagokion inbentarioa jasoko ditu.

COPIAS

El Archivo de la Sociedad de Ciencias Aranzadi ofrece a los usuarios un servicio de obtención de copias de los fondos fotográficos. Para solicitar copias se ha realizado un procedimiento que está disponible para el usuario a través de nuestra página web (www.aranzadi.eus).

Como todos los años, la mayoría de las solicitudes de copias recibidas en 2016 corresponden al fondo fotográfico de Jesús Elósegui Irazusta. Estas copias han sido utilizadas, por ejemplo, para la realización de exposiciones como la organizada por el Museo San Telmo sobre deporte vasco titulada "Jokoak" e inaugurada en julio de 2016.

Kutxa Kubo organizó una exposición sobre el fotografo Ricardo Martín y en su catálogo se utilizó una fotografía, perteneciente al fondo Elósegui, de Rafael Pikabea politico nacido en Oiartzun que durante la Guerra Civil fue representante del Gobierno de Euzkadi en París.

Otro ejemplo es la exposición organizada por la Fundación DSS2016 sobre Eresoinka. Para hacer los paneles de esta exposición se han utilizado casi 400 fotografías de Jesús Elósegui.

Este año también se han utilizado fotografías de Eresoinka para realizar un documental titulado"Voces de papel". Este documental se estrenó en el Festival de Cine de San Sebastián el 20 de septiembre y se difundió en ETB por primera vez el 9 de octubre.

La Fundación DSS2016 pidió a Aranzadi una fotografía sobre fosas de la Guerra civil para la exposición "La Milla de la Paz" y para ello eligieron una fotografía realizado por Oscar Rodríguez en la excavación de Estepar (Burgos), en 2014.

Otro ejemplo es la exposión organizada por Bakeola titulada "Oroimena Bizirik" en la que utilizaron imágenes del fondo Jean Pelletier.

DIGITALIZACIÓN

El Archivo de la Sociedad de Ciencias Aranzadi también pone a disposición de los usuarios un servicio de digitalización de fondos fotográficos. El servicio de Archivo está abierto a todos aquellos usuarios que estén interesados en la digitalización de fotografías relacionadas con Aranzadi o con las áreas de estudio de nuestros departamentos. Los interesados pueden depositar temporalmente las fotografías para su digitalización o bien pueden donarlas para su custodia y conservación en el Archivo de la Sociedad de Ciencias Aranzadi. En ambos casos el interesado recibirá una copia digital del material digitalizado junto con el correspondiente inventario.

Funtsa / Fondo: JUAN MARI PALLÍN

Egilea / Autor: Desconocido / Ezezaguna

Data / Fecha: 1937 (ca.)

Deskribapena: Presoei laguntzera San Kristobal gotorlekura igotzen zen emakume taldea.



Funtsa / Fondo: Astronomía

Egilea / Autor: JUAN CARLOS MARTÍN

Data / Fecha: 2015/11/13

Descripción: Nebulosa de emisión IC405 o nebulosa de la estrella llameante.

Funtsa / Fondo: Jesus Elosegui Irazusta

Egilea / Autor: Jesus Elosegui Irazusta

Data/ Fecha: 1936/01/25

Deskribapena: Sagar-dantza Tolosako aberri-etxean/ Sagar-dantza en la aberri- etxea de Tolosa.

Funtsa / Fondo: G. HOMBRADOS OÑATIVIA

Egilea / Autor: Aygúes

Data / Fecha: 1954

Deskribapena: "Norte: Semanario Gráfico de Actualidad" aldizkariaren azala 1954. urtean. Donostia egunera dedikatua, azalean Gaztelubideko danbor nagusia azaltzen da, Demetrio Tellechea. (Gregorio Hombrados Oñativiak bildutako dokumentazioa).

2016an beste familiak eta partikularrak utzi dituzte bere fondoak digitalizatzeko baina oraindik prozesuan gaude. Eta Gerra Zibilari buruzko dokumentazioa Saseta Familia, Julio Garciak eta Fernando Lete Lezetak utzi dituzte Aranzadin digitalizatzeko. Lerro hauen bidez, guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu beren argazki bilduma digitalizatzeko jarritako konfiantzagatik.

Iaz, 2015an, Juan Mari Pallinen fondoa digitalizatu genuen eta aurten, 2016ko irailaren, "Juan Mari Pallín. Nafarroako San Kristobal Gotorlekuko (1937-1940) espetxeko bizitzari buruzko testigantza argitarabea" liburua aurkeztu genuen.

ZABALTZEA

2016an gure argazki fondoak zabaltzea jarraitu ditugu eta horretarako gure webgunean (www.aranzadi.eus) "Asteko argazkia" atalean eta astero argazki berri bat jartzen dugu. Argazkiak aukeratzeko, zeintzuk diren aste bakoitzaren Aranzadiko ekintzak kontuan hartu ditugu eta erabiltzen ditugu bai argazki zaharrak bai argazki berriak.

En 2016 varias familias y particulares nos han dejado sus fondos para digitalizar pero estos fondos se encuentran todavía en proceso de digitalización. También nos han dejado en Aranzadi documentación para digitalizar relativa a Guerra Civil, como la depositada por la familia Saseta, Julio García o Fernando Lete. Desde estas líneas tenemos que agradecerles a todos ellos la confianza depositada en nosotros para la digitalización de sus colecciones.

El año pasado, en 2015, digitalizamos el fondo Juan Mari Pallín y este año, en septiembre de 2016 se ha presentado el libro "Juan Mari Pallín. Un testimonio inédito sobra la vida de la prisión en el Fuerte de San Cristóbal, Navarra (1937-1940)" .

DIFUSIÓN

En 2016 hemos seguido difundiendo una pequeña parte de nuestros fondos y para ello en nuestra página web (www.aranzadi.eus) se creó un apartado nuevo llamado "La foto de la semana" , donde semanalmente se cuelga una foto. Para elegir las imágenes se tienen en cuenta la actividades que se van a realizar durante esa semana en Aranzadi así como fechas señaladas del calendario, utilizando tanto fotografías antiguas como actuales.

Aranzadi Zientzia Elkarteak donazio ezberdinak jasotzen ditu, ez bakarrik argazki eta liburu funtsak, bilduma pertsonalak ere bai. Bilduma hauek elkartean jasotzen dira bere babesa, ikerketa eta dibulgaziorako.

Orrialde hauetatik gure eskerrik onena helarazi nahi diegu euren bilduma interesgarri eta estimatuak gure esku utzi dituzten guztiei.

BILDUMAK ANTOLAKETA

2016. urtean, bilduma batzuen dohaintza edo gordailatzea kudeatu da eta eginiko bildumen artean badira batzuk, ezaugarri oso ezberdinak dituztenak. Alde batetik NIESSEN bilduma dago, batez ere material elektrikoz osatua enpresa sortu zenetik hona. Bilduma hau kudeatzeko lanak 2014an jarri dira abian eta 2016an antolaketa lanak jarraitu ditugu.

Beste aldetik, aurten jaso ditugu materiala Gerra Zibilari buruz, hau da, Jose Aranaren familia. Jose Arana, frontean hildako ANVko lehen kidea: Errepublikako billeteak; ANVren logoa, izarra eta lauburua dituen entseina –Jose Aranak bere arropan zeramana hil zenean–; eta Jose Aranarentzako lore-koroa, ikurrinaren koloreak dituen oihalezko banda batekin.

VALLE DE LERSUNDI - IRELAND

Bildumen artetik baten bat aipatzekotan 2016an "Valle de Lersundi – Ireland" bilduma da. Anton Valle Lersundi bazkidea aurten eskatu zigun bere bildumen inbentarioa egitea.

Bilduma hau era askotako gaiak jorratzen dituzten liburuz (entziklopediaz, aldizkariz, eleberriz…) eta objektu historiko zenbaitzuez (margolanez, armaz eta altzariz) osatuta dago gehienbat. Bestalde, mundu osoan zehar egindako bidaietan eskuratutako objektuak ere nabarmenak dira, gutxi badira ere, besteak beste, eskulanak eta bitxikeria batzuk. Kronologiari dagokionez, bai liburuak bai objektuak hainbat garaitakoak dira, XVI. mendeko piezekin hasita gaur egun arte.

Inbentarioko lana objektuak aurkitzen diren etxean bertan egina dago. Oihane Mendizabal Sandonis eta Suberri Matelo Mitxelena (Aranzadiko kideak biak) arduratu dira inbentarioa egiteaz. Inbentariatutako "Valle de Lersundi - Ireland" bildumak guztira 804 pieza ditu, euren tipologiaren arabera sailkatuta daude.

La Sociedad de Ciencias Aranzadi recibe donaciones no sólo de fondos bibliográficos y fotográficos, sino también colecciones personales que son depositadas en la Sociedad para su custodia, estudio y difusión.

Desde estas páginas queremos hacer llegar nuestro agradecimiento a todos aquellos que ya nos han confiado sus interesantes y apreciadas colecciones.

ORGANIZACIÓN DE COLECCIONES

En el 2016 hemos gestionado la donación o depósito de algunas colecciones que están compuestas de materiales muy diferentes. Por un lado está la colección NIESSEN formada por material eléctrico. La gestión de esta colección se puso en marcha en 2014 y en este 2016 se han continuado las tareas de organización.

Por otro lado, este año hemos recibido materiales relativos a la Guerra civil, por ejemplo los donados por la familia de José Arana, primer muerto en el frente perteneciente a ANV: billetes de la república, escarapela con el logo de ANV, estrella y lauburu, que tenía en su ropa Jose Arana cuando murió y una banda de tela, con los colores de la ikurriña, de corona de flores para Jose Arana.

VALLE DE LERSUNDI - IRELAND

Este año podemos destacar la colección "Valle de Lersundi – Ireland". En 2016 el socio Anton Valle de Lersundi nos pidió hacer un inventario de su colección personal.

Esta colección la componen, mayormente, libros de diversa temática (como enciclopedias, revistas, novelas,…) y algunos objetos históricos (como cuadros, armas y muebles). Por otra parte, son minoría, aunque reseñables los objetos que han sido adquiridos en viajes realizados por todo el mundo, como recuerdos, artesanía o curiosidades. Lo que respecta a la cronología, tanto los libros como los objetos datan de una fechas muy variadas, habiendo, así, piezas desde el siglo XVI hasta hoy en día.

El trabajo de inventariado ha sido realizado en la misma casa donde se encuentran los objetos por, Oihane Mendizabal Sandonis y Suberri Matelo Mitxelena (socios de Aranzadi). En total la colección "Valle de Lersundi- Ireland" inventariada consta de 804 piezas clasificadas según su tipología.

JOSE ARANA

Retrato de Jose Arana
Fondo: familia Jose Arana

Jose Aranaren erretratua
Funtsa: Jose Arana familia



Banda y escarapela donada por la familia de José Arana.
Fondo: familia Jose Arana

Jose Aranaren sendiak emandako banda eta entseina.
Funtsa: Jose Arana familia

VALLE LERSUNDI-IRELAND

Brújula de navegación
Autor: Suberri Matelo

Nabigazio-iparrorratza.
Egilea: Suberri Matelo

Grupo de trabajo (Oihane Mendizabal, Suberri Matelo y Anais Rodriguez) que realizó el inventario de la colección "Valle Lersundi-Ireland" con Antón Valle de Lersundi
Autor: Juantxo Agirre

Anton Valle de Lersundirekin batera, "Valle Lersundi-Ireland" bilduma inbentariatu zuen lan-taldea (Oihane Mendizabal, Suberri Matelo eta Anais Rodriguez).
Egilea: Juantxo Agirre

Obras de Voltaire de 1792.
Autor: Suberri Matelo

Voltaire-ren1792ko lanak.
Egilea: Suberri Matelo

KOMUNIKAZIO TXOSTENA

2016. urtea komunikazioari dagokionez oso urte emankorra izan da. Aurten Aranzadiko sail guztiek izan dute oihartzuna hedabideetan. Hona hemen prentsaurre eta agerraldi garrantzitsuenak:

2016 ha sido un año fructífero y lleno de noticias, ya que los medios de comunicación se han hecho eco de las actividades de todos los departamentos de Aranzadi. He aquí un resumen de las ruedas de prensa y comparecencias destacadas:

Eusko gudarostearen sorreraren liburu aurkezpena Azpeitian.

Gudari baten gorpuzkien entrega bere familiari, Mendata (Bizkaia).

Aranzadi entrega su base de datos sobre la Guerra Civil al Instituto Gogora.

Gipuzkoako Foru Aldundian gerra zibileko datu baseen aurkezpena.

Presentación de la exhumación de Mola y Sanjurjo en Pamplona.

Aduna, Asteasu eta Zizurkilgo herriak euren memoria berreskuratu dute liburu baten bitartez.

Aranzadi recupera los restos de la familia Sagardia Goñi en Urbasa.

Juan Mari Pallinen testigantzen liburua plazaratu du Aranzadik.

Presentación del Proyecto Birdflyway en Urdaibai Bird Center (Bizkaia).



Txoriak proiektuaren aurkezpena Donostiako udalean.

10 urte Txingudin eraztuntzen.

Lezetxikiko indusketa kanpaina eta etenaldia.

Iturissa eta Erromatar galtzaden indusketa kanpaina.

Alkerdi 2: las pinturas rupestres más antiguas de Navarra.

Euskal mendizaletasuna babesteko hitzarmen estrategikoa.

EUREF europar geodesia kongresua Donostian.

WEBGUNEA ETA SARE SOZIALAK

Aranzadiko webgunean elkartearen baitan lanean diharduten ikerlari, kolaboratzaile eta bazkideen ekintzak hedatzen dira. 2016an zehar hobekuntza teknikoak burutu dira eta AranzadiTV eta Asteko Argazkia bezalako atalei bultzada eman zaie.

Sare sozialetan Aranzadik irakurle berriak lortzen jarraitzen du: 3548 Facebook-en eta 1741 Twitterren.

IRRATSAIOAK

Ostegunero, 20:00etan, Radio Euskadiko La Mecánica del Caracol saioan Planeta Aranzadi atala gure ikertzaileen azken berriak hedatzen dira.

ERAKUSKETAK

SAN ADRIAN: DENBORAREN IGAROBIDEA

Lizarrateko igarobidea eta, zehazki, San Adrian deritzon zuloa, oso aspalditik gizakiak erabilitako leku ezaguna da. Aranzadi Zientzia Elkarteak azken urteetan egindako indusketei esker, gune honen bitartez Gipuzkoako historiari buruzko datu interesgarriak ezagutu ahal izan ditugu. Hori guztia hedatzeko asmoarekin Komunikaziotik erakusketa bat sustatu genuen San Telmo Museoarekin elkarlanean. Museoaren Laborategi aretoan egon zen ikusgai otsailaren 23tik apirilaren 3ra arte.

PÁGINA WEB Y REDES SOCIALES

La web de Aranzadi se hace eco de las iniciativas impulsadas por nuestros investigadores, colaboradores y socios. Durante el 2016 se han realizado mejoras técnicas y se han potenciado los apartados de AranzadiTV y la Foto de la Semana.

La presencia de Aranzadi en las redes sociales es cada año mayor: 3548 personas nos leen en Facebook y 1741 en Twitter.

PROGRAMAS DE RADIO

Cada jueves, a las 20:00 en Radio Euskadi, se emite Planeta Aranzadi, un espacio dentro del programa de divulgación científica La Mecánica del Caracol donde nuestros investigadores exponen sus trabajos.

EXPOSICIONES

SAN ADRIAN: EL TÚNEL DEL TIEMPO

El paso de Lizarrate, y en concreto la cavidad de San Adrian, ha sido un lugar transitado y conocido desde tiempos inmemoriales. Las excavaciones realizadas en los últimos años por Aranzadi han permitido conocer interesantes datos acerca de la historia de Gipuzkoa y, por ello, desde Comunicación se organizó una exposición en colaboración con el Museo San Telmo. La muestra estuvo abierta en el espacio Laboratorio del propio museo entre el 23 de febrero y el 3 de abril, con la entrada gratuita.

UNIBERTSORA BEGIRA
Irudi astronomikoek leiho susmaezinak irekitzen dituzte gure zerura eta Unibertsoa ulertzen laguntzen digute. Aranzadiko astronomoek espazio eta denboran zehar ibilbidea erakutsi zuten Donostiako Okendo kulturetxean irailaren 12tik urriaren 28ra arte ikusgai egon zen erakusketan.

ERROMATAR GARAIA GURE INGURUAN
Altzako Casares kulturetxean ikusgai egon zen erakusketa honetan, orain dela 2000 urte gure lurraldea erromatar administraziopean geratu zela azaltzen zen. Handik aurrera hainbat aldaketa garatu ziren gure inguruan, haietako batzuek iraundu zutenak.

VENTANAS AL UNIVERSO
Las imágenes astronómicas nos abren ventanas insospechadas en el cielo que nos ayudan a entender el Universo. Los astrofotógrafos de Aranzadi presentaron un recorrido por el espacio y por el tiempo a través de una exposición en la casa de cultura de Okendo en Donostia. La exposición se pudo visitar entre el 12 de septiembre y el 28 de octubre del 2016.

LA ÉPOCA ROMANA EN NUESTRO ENTORNO
Esta exposición para la casa de cultura Casares en Altza nos transporta 2000 años atrás, cuando nuestro territorio quedó incorporado a la administración romana. Desde ese momento se aceleraron una serie de transformaciones en nuestro entorno, algunas de las cuales perduraron.

PINT OF SCIENCE

El festival Pint of Science tiene como objetivo ofrecer charlas interesantes, divertidas, importantes, sobre las últimas investigaciones científicas, en un formato accesible al público. ¡Y todo ello en un bar! El objetivo es ofrecer una plataforma que permita a la gente discutir la investigación con las personas que la llevan a cabo. Se trata de una organización sin fines de lucro, dirigida por voluntarios, y que fue creada por una comunidad de investigadores de postgrado y postdoctorales del Reino Unido en 2012. El festival se celebra anualmente durante tres días simultáneamente en bares de todo el mundo.

En 2016 Aranzadi se ha sumado a este festival internacional de divulgación de la ciencia y ha organizado una serie de mesas redondas en el bar Botanika de Donostia. Los días 23, 24 y 25 de mayo, miembros de Aranzadi e investigadores invitados hablaron sobre biodiversidad y el planeta tierra:

- 23 de mayo. «Fauna amenazada por la actividad humana», de la mano de los biólogos Xabier Rubio, Kiko Alvarez y Aitor Galarza.
- 24 de mayo. «El antropoceno». Participaron los geólogos Asier Hilario, Alejandro Cearreta y Jose Maria Hernández.
- 25 de mayo. «Ecosistemas marinos». Mesa redonda con las biólogas Maite Louzao, Juan Arizaga y Bea Diaz.

2015. URTEKO TXOSTEN EKONOMIKOA

INFORME ECONÓMICO 2015

2016ko apirilaren 7an, Gipuzkoako hiriburuko Zorroagagainean dagoen egoitzan, Aranzadi Zientzia Elkarteko Kideen Ohiko Biltzarra izan zen. Bertan, 2015. urteko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak aurkeztu zitzaizkien bazkideei, eta Ignacio Mª Uzcudun Guruceaga zinpeko kontu-auditore jaunak egindako auditoretza-txostena irakurtzeari ekin zitzaion. Auditoretza-txosten hau, aurten ere, Luis Javier Salaberria Atorrasagasti jaunak irakurri zuen, aipatutako kontu-auditorearen izenean. Auditoretza-txosten hau, eta 2015. urteko kontuak, bazkideek aho batez eta salbuespenik gabe onartuak izan ziren.

Aurreko urteetan bezala, Aranzadiana aldizkarian, hurrengo urteko ekitaldiari dagozkion behin-behineko kontuak jaso dira, kasu honetan 2016.ari dagozkionak, eta aldizkariaren argitaratze-fase honetan, Ignacio Mª Uzcudun Guruceaga zinpeko kontu-auditore jaunak berak dihardu horiek ikuskatzen. 2017ko apirilaren 5ean egitekoa den Bazkideen Biltzar Nagusian, dagokion auditoretza-txostenarekin batera, 2016. urteko behin betiko kontuak aurkeztuko zaizkie bazkideei, onartu egin ditzaten, egoki iritziz gero. Behin berretsita, urteko kontuak Aranzadi Zientzia Elkartearen web gunean plazaratuko dira (www.aranzadi.eus).

Lehendabizi, 2015. urteko ekitaldiari dagokionez, urteko **Emaitzen Kontuak** 8.325,35 €-ko galera bat daukala ikus dezakegu , aurreko eki-

La Asamblea Ordinaria de Socios de la Sociedad de Ciencias Aranzadi tuvo lugar el pasado 7 de abril de 2016 en la sede habitual sita en el Alto de Zorroaga de la capital guipuzcoana. En ella, se presentaron ante los socios las cuentas anuales correspondientes al ejercicio 2015, y se procedió a la lectura del informe de auditoría realizado por el censor jurado de cuentas D. Ignacio Mª Uzcudun Guruceaga. Este informe fue leído un año más por el también censor jurado de cuentas D. Luis Javier Salaberria Atorrasagasti, en nombre del citado auditor. Este informe de auditoría, sin salvedades, y las cuentas del ejercicio 2015, fueron aprobados en la Asamblea por la unanimidad de los socios.

En la revista Aranzadiana, al igual que en ediciones precedentes, se presentan las cuentas anuales provisionales del ejercicio siguiente, en este caso el correspondiente al 2016, que en el momento de la publicación de esta revista, están siendo auditadas por el mismo censor D. Ignacio Maria Uzcudun Guruceaga. En la próxima Asamblea de Socios del 5 de abril de 2017, junto con la lectura del informe de auditoría correspondiente, se presentarán ante los socios, las cuentas anuales definitivas del ejercicio 2016, para someterlas a su aprobación. Una vez ratificadas, las cuentas anuales se publicarán en la página web de la Sociedad de Ciencias Aranzadi (www.aranzadi.eus).

En lo que se refiere, en primer lugar, al ejercicio 2015 podemos observar que la **Cuenta de Resultados** del año ofrece una pérdida de 8.325,35 € después de

taldia (2014) 10.729,97 €-ko superabit batekin amaitu ondoren . Galera hau ozta-ozta iristen da fakturazioagatiko eta diru-laguntzagatiko bolumen osoaren % 0,3 osatzera; beraz, ekitaldiko emaitza orekatutzat jo dezakegu. Sarreren atalean, Hezkuntza Ministerioak emandako 19.200 €-ko diru-laguntza bat lortu da, zenbateko hau aurreko urtekoarekin alderatuta % 60 txikiagoa bada ere. Elkartearen gastu estrukturalak finantzatzen dituen diru-laguntza honi, Eusko Jaurlaritzak aurreneko aldiz eman duen 75.000 €-ko diru-laguntza bat gehitu behar zaio. Bi diru-laguntza orokor hauez gain, Donostiako Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuaren diru-laguntzak ere iritsi zaizkigu, besteak beste, ondoko zerbitzuak eta ekimenak finantzatzeko: liburutegia, artxiboa, funts dokumentalen digitalizazioa, Zorroagako egoitzaren alokairua, Munibe aldizkarien argitalpena eta zabalpena, arkeologia-jardunaldien antolaketa, e.a. Elkartearen gastu estrukturalak finantzatzeko iturriak mugatuak izan arren, posible izan da garatu beharreko jardueren eta proiektuen dinamikari eustea. Fakturazioagatiko sarreren bolumena 884.841,73 €-ra igo da (2014. urtean baino % 4 gehiago); diru-laguntzen bolumena, berriz, azken urteetako batezbestekoan mantendu da, 2015ean 1,37 milioi eurokoa izateraino, eta horri gehitu egin behar zaio ibilgetu ez finantzarioko diru-laguntzen zenbatekoa, hau da, 210.000 € ia. Gure bazkideek ematen dizkiguten konfiantza eta babesaren beste erakusgarri bat, bazkide-kuotengatiko sarreren diru-zenbatekoa 80.000 €-ko muga lehen aldiz gainditu izana da, 80.442,75 €-koa izatera iritsi baita, zehatz-mehatz. 2015. urtean, beste urte batez lortu da bazkide-kopurua igotzea eta, horrenbestez, kontzeptu honengatiko sarrerek ere gora egitea.

Bestalde, gastuen atalean, ahal den gehiena egiten jarraitzen dugu Elkartearen gastuei (argindarra, berokuntza, telefonoa, langileria, e.a.) eusteko. Aurreko urteetan bezala, "Langilego gastuak" partida izan da handiena, guztira 1,27 milioi eurorekin. 2015. urteko ekitaldi honetan 72 gizabanako izan dira Elkartearekin lan-kontratu bat izan dutenak. Datu hau aurreko urteetakoa baino nabarmen baxuagoa da, 2015. urtean ez baita lantegi-eskolarik antolatu. 72 gizabanako hauek ikertzaileak dira gehienbat; horrez gain, liburutegiko, artxiboko, administrazioko, dibulgazioko eta beste atal batzuetako lan-pertsonala dago, bai Donostiako egoitzan daudenak bai Gautegiz-Arteagako Urdaibai Bird Centerri atxikita daudenak. Bizkaiko zen-

finalizar el ejercicio anterior (2014) con un superávit de 10.729,97 €. Esta pérdida apenas supone un 0,3% del volumen total de ingresos por facturación y subvenciones, por lo que podemos considerar el resultado del ejercicio como equilibrado. En el apartado de ingresos, se ha obtenido subvención por parte del Ministerio de Educación por importe de 19.200 €, aunque este importe es un 60% inferior a la del año inmediatamente anterior. A esta subvención que financia los gastos estructurales de la sociedad, se añade la subvención concedida por primera vez por parte del Gobierno Vasco, por importe de 75.000 €. Además de estas dos subvenciones generalistas, se han mantenido también las subvenciones del ayuntamiento de Donostia y del departamento de Cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa para el mantenimiento, entre otros, del servicio de biblioteca, archivo, digitalización de fondos documentales, alquiler de la sede de Zorroaga, publicación y difusión de la revista Munibe, jornadas de arqueología, etc). A pesar de la limitación de las fuentes de financiación de los gastos estructurales de la Sociedad, se ha sido capaz de mantener la dinámica de actividades y proyectos desarrollados. El volumen de ingresos por facturación ha ascendido a 884.841,73€ (un 4% superior al de año 2014) mientras que el volumen de subvenciones se ha mantenido en la media de los últimos dos años, alcanzando en 2015 los 1,37 millones de euros, a lo que hay que añadir el importe de las subvenciones de inmovilizado no financiero por valor de casi 210.000 €. Otra muestra más de la confianza y apoyo que recibimos de nuestros socios, es el hecho de que el importe de ingresos por cuotas de socio ha superado por primera vez los 80.000 €, llegando concretamente a 80.442,75 €. En el año 2015, un año más, se ha incrementado el número de socios y por tanto los ingresos por este concepto.

Por otro lado, en el apartado de gastos, continuamos con el esfuerzo en la contención de los gastos estructurales de la Sociedad (luz, calefacción, teléfono, personal, etc.). Como en años precedentes, la partida de "Gastos de personal" es la que mayor cuantía representa, con un total de 1,27 millones de euros. Durante este ejercicio 2015 han sido 72 las personas distintas que han tenido un contrato laboral en la Sociedad. Este dato es sensiblemente inferior al de años anteriores, ya que este año 2015 no se ha llevado a cabo ninguna escuela taller. Estas 72 personas corresponden en su mayor parte a investigadores, además del personal de servicio de biblioteca, archivo, administración, divulgación, etc., tanto los correspondientes a la sede de Donostia-San Sebastián, como al personal adscrito al Urdaibai Bird Center de Gautegiz-Arteaga. En este

tro honetan, urtean zehar 14 gizabanako kontratatu dira, 2 bekadun barne, zeinen kontratuak BBK Fundazioak finantzatu dituen. Beren kopuruagatik esanguratsuenak diren gainerako gastuak ondokoak dira: "Ustiapena" (968.299,57 €), gastu estrukturalak zein proiektu-garapenekoak; "Hornikuntzak" (107.619,53 €); eta "Amortizazioak" (219.061,35 €), ibilgetu materialaren eta ibilgetu ez materialarenak, eta Leioako egoitza erabiltzeko eskubideenak. Azkenik, finantza-gastuak 17.389,94 €-koak izan dira guztira.

Egoeraren Balantzean, 2015eko abenduaren 31ra arte, aktiboaren balioa 6,72 milioi eurokoa da. "Aktibo ez arrunta"ren partida ibilgetu materialak gehienbat osatua dago eta 5,14 milioi euroren inguruko balioa du (iaz baino % 5 gehiago), non jasota azaltzen baitira Gongorako "Zarra Jauregia"ren balioa eta Gautegiz-Arteagako Urdaibai Bird Centerren balioa. "Aktibo arrunta" izeneko partida 1,58 milioi eurokoa da eta zenbatekorik esanguratsuenak "Bezeroak" (952.000 €-tik gora) eta "Eskudirua eta Aktibo Likidoak" (621.400,24 €) atalenak dira. "Ondare Garbia eta Pasiboa" atalean jada, "Ondare garbia"k 5,30 milioi euroko balioa du, non azaltzen baitira hurrengo ekitaldietan banatu beharreko diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak, guztira 5 milioi eurokoak; bai eta funts propioen balioa (kapitala) ere, guztira 390.000 €-ren ingurukoak. Abenduaren 31ra arteko Egoeraren Balantzearekin amaitzeko, esan beharra dago, ezen, "Pasibo ez Arrunta" osatzen dutenak Gongorako Zarra jauregia erosteko eta birgaitzeko bere garaian eskatutako hipoteka-mailegua (175.064,84 €) eta "Epe luzeko periodifikazioak" (501.191,49 €) direla; "Pasibo Arrunta" osatzen dutenak, berriz, "Hartzekodunak" (332.509,40 €) eta "Epe laburreko periodifikazioak" (411.273,33 €) partidak dira.

centro de Bizkaia han sido contratadas 14 personas a lo largo del año, incluidos 2 becarios, cuyos contratos de estos últimos han sido financiados por BBK Fundazioa. El resto de gastos más representativos por su cuantía son los gastos de "Explotación" tanto estructurales como para el desarrollo de los proyectos, por importe de 968.299,57 €, los "Aprovisionamientos" (107.619,53 €) y "Amortizaciones" tanto del inmovilizado material, como inmaterial, y de los derechos de uso de la sede de Leioa (219.061,35 €). Por último, los gastos financieros han supuesto un coste de 17.389,94 €.

En el Balance de Situación a 31 de Diciembre de 2015, podemos observar que el valor del activo es de 6,72 millones de euros. La partida de "Activo no corriente", formada en su mayor parte por el inmovilizado material, tiene un valor cercano a 5,14 millones de euros (un 5% superior al año pasado) donde aparece reflejado el valor del "Palacio Zarra" de Góngora, y el Urdaibai Bird Center de Gautegiz-Arteaga. En la partida de "Activo corriente", 1,58 millones de euros, los importes más representativos corresponden a los "Clientes", con algo más de 952.000€ y el "Efectivo y Activos Líquidos", por valor de 621.400,24€ €. Ya en el apartado "Patrimonio Neto y Pasivo", el "Patrimonio neto" tiene un valor de de 5,30 millones de euros, donde se ven reflejados el importe de las subvenciones, donaciones y legados a distribuir en próximos ejercicios, por importe cercano a los 5 millones de euros, así como el valor de los fondos propios (capital) por importe cercano a los 390.000 €. Para terminar con los datos del Balance de Situación a 31 de diciembre, cabe mencionar que el "Pasivo no corriente" lo conforma el saldo del préstamo hipotecario solicitado en su día para la compra y rehabilitación del palacio Zarra de Gongora, por valor de 175.064,84 €, y las "Periodificaciones a largo plazo" (501.191,49 €), mientras que el "Pasivo Corriente", lo conforman las partidas de "Deudas a corto plazo"(4.698,48 €) "Acreedores" (332.509,40 €) , y las "Periodificaciones a corto plazo", por valor de 411.273,33 €.

2015 GALDU-IRABAZI KONTUAK // CUENTA DE PÉRDIDAS Y GANANCIAS 2015

		(Debe) Haber
1	Bazkide kuotak / *Cuotas de socio*	**80.442,75** €
2	Salmenten zenbateko garbia / *Importe neto de la cifra de negocios*	**884.841,73** €
3	Enpresak aktiborako egindako lanak / *Trabajos realizados por la empresa para su activo*	**28.144,35** €
4	Zuzkidurak / *Aprovisionamientos*	**-107.619,53** €
5	Beste ustiapen sarrerak / *Otros ingresos de explotación*	**1.372.658,00** €
6	Langile gastuak / *Gastos de personal*	**-1.274.566,53** €
7	Beste ustiapen gastuak / *Otros gastos de explotación*	**-968.299,57** €
8	Ibilgetuaren amortizazioa / *Amortización de inmovilizado*	**-219.061,35** €
9	Finantziero ez den ibilgetu kapital dirulaguntzak egozketa / *Imputación de subvenciones de inmovilizado no financiero*	**209.998,44** €
A) USTIAPEN EMAITZA / *RESULTADO DE EXPLOTACIÓN*		**6.538,29** €
14	Finantza gastuak / *Gastos financieros*	**-17.389,94** €
16	Finantza tresna salmenta emaitza eta narriadura / *Deterioro y resultado por enajenación de instrum. financieros*	**2.526,30** €
B) FINANTZA EMAITZA / *RESULTADO FINANCIERO*		**-14.863,64** €
C) ZERGAK AURRETIKO EMAITZA / *RESULTADO ANTES DE IMPUESTOS*		**-8.325,35** €
D) URTEKO EMAITZA (GALERA) / *RESULTADO DEL EJERCICIO (PÉRDIDA)*		**-8.325,35** €

2015 URTEKO ITXIERA BALANTZEA // BALANCE AL CIERRE DEL EJERCICIO 2015

AKTIBOA / *ACTIVO*	
A) AKTIBO EZ ARRUNTA / *ACTIVO NO CORRIENTE*	**5.136.001,18€**
I. Ibilgetu ez materiala / *Inmovilizado intangible*	183.839,07 €
II. Ibilgetu materiala / *Inmovilizado material*	4.875.156,11€
IV. Taldeko enpresetan inbertsioak epe luzerako *Inversiones en empresas del grupo a largo plazo*	77.006,00 €
B) AKTIBO ARRUNTA / *ACTIVO CORRIENTE*	**1.587.118,66 €**
II. Zordun komertzialak eta kobratzeko beste kontuak *Deudores comerciales y otras cuentas a cobrar*	952.114,07 €
IV. Epe motzerako finantza inbertsioak *Inversiones financieras a corto plazo*	4.855,75 €
V. Epe motzerako periodifikatzeak / *Periodificaciones a corto plazo*	8.748,60 €
VI. Eskudirua eta aktibo likidoak / *Efectivo y otros activos líquidos*	621.400,24 €
GUZTIRA AKTIBOA / *TOTAL ACTIVO (A+B)*	**6.723.119,84€**
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA / *PATRIMONIO NETO Y PASIVO*	
A) ONDARE GARBIA / *PATRIMONIO NETO*	**5.298.382,30 €**
A-1) Berezko Fondoak / *Fondos propios*	389.672,20 €
I. Kapitala / *Capital*	397.997,55 €
VII. Urteko emaitza / *Resultado del ejercicio*	-8.325,35 €
A-2) Jasotako dirulaguntzak, emateak eta legatuak *Subvenciones, donaciones y legados recibidos*	4.908.710,10 €
B) PASIBO EZ ARRUNTA / *PASIVO NO CORRIENTE*	**676.256,33 €**
II. Epe luzerako zorrak / *Deudas a largo plazo*	175.064,84 €
V. Epe luzerako periodifikatzeak / *Periodificaciones a largo plazo*	501.191,49 €
C) PASIBO ARRUNTA / *PASIVO CORRIENTE*	**748.481,21 €**
II. Epe motzerako zorrak / *Deudas a corto plazo*	4.698,48 €
IV. Hartzekodun komertzialak / *Acreedores comerciales a pagar*	332.509,40 €
V. Epe motzerako periodifikatzeak / *Periodificaciones a corto plazo*	411.273,33 €
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA (A+B+C) *TOTAL PATRIMONIO NETO Y PASIVO*	**6.723.119,84 €**

2016. URTEKO TXOSTEN EKONOMIKOA

INFORME ECONÓMICO 2016

Aranzadiana aldizkari hau argitaratzeko momentuan, Ignacio Maria Uzcudun Guruceaga jaunak 2016. urteko kontuak ikuskatzen dihardu. Aurreko urteetan bezala, hemen islatzen dena behin-behineko urteko kontuak dira. Auditoretza-txostena behin amaituta, urteko kontuak auditoretza-txostenarekin batera aurkeztuko zaizkie bazkideei 2017ko apirilaren 5eko Biltzarrean, onartu egin ditzaten, bidezkoa balitz, eta Elkartearen web gunean plazaratuko dira jarraian (www.aranzadi.eus). 2016. urteko behin betiko datuak hurrengo Aranzadianan ere jasoko dira.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasuneko eta Finantzetako departamenduak BEZaren aitorpena berrikusi zuen 2014. urteko ekitaldian, eta horren emaitzak 2016ko **Emaitzen Kontua** baldintzatu du. Jasotako diru-laguntzek balio erantsiari buruzko zergaren aitorpenean izan duten eragina interpretatzeko orduan, Aranzadi Zientzia Elkarteak betidanik erabili duen irizpidea oso homogeneoa izan da. Hala ere, 2014. urtean BEZa itzultzeko eskaera Ogasunaren aurrean aurkezturik, departamentuak eskatutako dokumentazio guztia igorri ondoren, eta Gipuzkoako Ogasunaren goi-arduradunekin hainbat bilera egin eta gero, BEZak diru-laguntzetan izandako jasanarazpena interpretatzeko ordura arte erabilitako irizpidea ez zela zuzena ondorioztatu zuten. Hori dela eta, gure Elkarteak 94.000 € inguruko diru-galera izan du. Erraz ulertzekoa denez, horrek desoreka nabarmena ekarri dio 2016. urteko emaitza ekonomikoari. Kolpe latza izan bada ere, 2016. ekitaldiko emaitzen kontuak 61.286,12 €-ko galera islatzen du. Elkarteak egin zezakeenaren ba-

- Landare mehatxatu batzuen informazioa handitzeak landare hauen kategoria-maila jaitsi ala igotzea ekar dezake. Era berean, miaketa lan hauetan mehatxatuta ez dauden baina arraroak diren topatutako beste landareen informazioa gehiagotzeak landare hauek katalogoan barneratzea ekar dezake.

TRABAJOS DE CONSERVACIÓN *EX SITU* E I*N SITU* DE VARIAS ESPECIES PRIORITARIAS Y DE ESPECIAL INTERÉS DE LA FLORA NAVARRA

Financiación: Gobierno de Navarra

Responsables: Maialen Arrieta, Joseba Garmendia, Maddi Otamendi y Anaïs Mitxelena

Colaboradoras: Jone Arizti, Saioa Aranburu y Josune Arakistain

El Convenio sobre Diversidad Biológica (CDB) en su Estrategia Mundial Actualizada para la Conservación de las Especies Vegetales 2011-2020, marcó varios objetivos específicos. Entre estos objetivos están garantizar la conservación *in situ* y *ex situ* del 75% de las especies amenazadas, y que por lo menos el 20% esté disponible para programas de recuperación y restauración. De las 2.796 especies que conforman la flora navarra, 20 han sido consideradas prioritarias para su conservación y gestión, 51 de ellas incluidas en el catálogo de especies amenazadas de Navarra, y otras 69, aunque hasta la fecha carecen de soporte legal, son de especial importancia para su conservación por su grado de rareza, endemicidad, etc.

La Sociedad de Ciencias Aranzadi está trabajando desde el año 2012 en la recolección y conservación *ex situ* de la flora de Navarra a través de las recolecciones desarrolladas dentro del LIFE TREMEDALES y los programas de conservación *ex situ* CANTABROPYRENAICAE y WESTPYR, desarrollados estos últimos en colaboración con entidades como el Jardín Botánico Atlántico, el Jardín Botánico de Olarizu y el Royal Botanic Gardens, Kew. Además, en 2015 se contó con la participación activa del Guardería de Navarra en



Placas petri utilizadas en el protocolo de germinación de *Microcnemum coralloides* subsp. *coralloides*.

Plantación de ejemplares de *Salsola soda* en las Bardenas Reales.

Bulbillos de *Woodwardia radicans* en bandejas con sustrato para su enraizamiento.

Plantación de ejemplares de *Eleocharis mamillata* subsp. *austriaca* en Irati.

las tareas de recolección, lo que hizo posible un avance significativo en la conservación de varias especies amenazadas de Navarra como *Eleocharis mamillata* subsp. *austriaca*, *Salsola soda*, *Microcnemum coralloides* subsp. *coralloides*, *Cochlearia glastifolia*, *Cochlearia aragonensis* subsp. *navarrana*…

Como resultado de las recolecciones realizadas desde el año 2012, incluyendo las realizadas por el Guardería de Navarra, se conservan en el Banco de Germoplasma Vegetal de Gipuzkoa 217 accesiones, correspondientes a 156 especies, de las cuales 24 se consideran especies de especial interés para la conservación en Navarra: 3 *vulnerables*, 7 *sensibles a la alteración de sus hábitats* y 14 *de especial interés*.

Durante la campaña de 2016 se han realizado varias actuaciones con el propósito de conservar varias especies prioritarias y de especial interés de la flora navarra, mediante trabajos de conservación *ex situ* e *in situ*. A continuación se resumen las actuaciones realizadas:

Actuación 1. *Eleocharis mamillata* subsp. *austriaca*: se ha realizado el reforzamiento de la población de Irati. Para ello, se ha utilizado la planta cultivada a partir de material vegetativo recolectado de la población de la fuente de Arzuaga (Irati). Además, se ha recolectado material reproductivo (semillas) de varias localidades y se ha revisado material enviado por el Guardería de Navarra para su identificación.

Actuación 2. *Microcnemum coralloides* subsp. *coralloides*: se ha desarrollado el protocolo de germinación de la especie utilizando semillas recolectadas por el Guardería de Navarra en 2015.

Actuación 3. *Salsola soda*: se ha realizado el reforzamiento de la única población hasta ahora conocida en Navarra, en las Bardenas Reales. Para ello, se han utilizado los ejemplares cultivados a partir de las pruebas de germinación realizadas con semillas recolectadas por el Guardería de Navarra en 2015.

Actuación 4. *Woodwardia radicans*: se ha realizado el reforzamiento de la única población localizada (año 2007) en Navarra. Para ello, se ha utilizado material vegetativo de *Woodwardia radicans* recolectado y cultivado de varias poblaciones de la parte occidental de Gipuzkoa.

CONSERVACIÓN DE LA BIODIVERSIDAD VEGETAL EN LOS ARENALES COSTEROS CANTÁBRICOS (LIFE+ ARCOS)
Financiación: Comisión Europea y participantes
Responsable del proyecto: Álvaro Bueno (Jardín Botánico Atlántico de Gijón – Universidad de Oviedo)
Responsables del Dpto. Botánica Aranzadi: Leire Oreja & Maialen Arrieta
Entidades participantes: Jardín Botánico Atlántico de Gijón-Universidad de Oviedo, Ministerio de Medio Ambiente, Diputación Foral de Gipuzkoa, Ecología litoral S.L., Sociedad de Ciencias Aranzadi y Gobierno de Cantabria

Ejemplares de la especie Helichrysum stoechas producidas en el vivero de Arizmendi.

Ejemplares de la especie Dianthus hyssopifolius subsp. macrorhiza producidas en el vivero de Arizmendi.

Este proyecto está liderado por el Jardín Botánico Atlántico de Gijón-Universidad de Oviedo y se está desarrollando desde julio del 2014 hasta diciembre del 2018. Su objetivo es la mejora del estado de conservación de 10 ecosistemas dunares de la costa cantábrica. En el caso de Gipuzkoa se está trabajando en la ZEC Ría de Urola (ES2120004) y en la ZEC y Biotopo Protegido de Iñurri-tza (ES210009).

Durante este año el Departamento de Botánica ha participado en las acciones de desarrollo de protocolos de cultivo de especies relevantes para la restauración de ecosistemas dunares, además de en las acciones de comunicaciones y gestión del proyecto.

Junto con la Jardín Botánico Atlántico-Universidad de Oviedo y la Diputación Foral de Gipuzkoa, se han realizado las pruebas de germinación en laboratorio y protocolos de cultivo en vivero de las especies recolectadas en el proyecto. Los resultados obtenidos en 2016 (aún sin publicar), han sido de gran utilidad a la hora de producir las plantas que se utilizaran en las acciones de restauración y revegetación de las dunas cantábricas en los siguientes años.

Algunas de las plantas procedentes tanto de las acciones anteriormente mencionadas como de otras acciones (esquejes…) se han plantado en el Biotopo Protegido Iñurritza. Concretamente los ejemplares plantados corresponden las especies protegidas *Galium arenarium* (en peligro de extinción), *Honkenya peploides* (vulnerable), *Medicago marina* (en peligro de extinción) y las estructurales *Ammophila arenaria*, *Calystegia soldanella*, *Elymus farctus*, *Euphorbia paralias* y *Pancratium maritimum*.

ULIAKO HAZTEGIEN BALIO NATURAL, HISTORIKO, KULTURAL ETA PAISAJISTIKOAREN IKERKETA ETA BERE GARRANTZIA DONOSTIAKO HIRIAREN PLANIFIKAZIO BERDEAN. BALORAZIO BOTANIKOA

Finantzazioa: Ulia Auzo Elkartea
Arduradunak: Yoana García eta Maialen Arrieta

Uliako Auzo Elkarteak, bertako lorategian aurreikusita dagoen proiektu urbanistikoarekin arduratuta Aranzadi Zientzia Elkarteari inguru honen ikerketa egitea eskatu dio. Ikerketa, ikuspuntu ezberdinetatik egin da: historikoa, paisajistikoa, botanikoa eta herpetologikoa. Hona hemen Botanikaren arloari dagokion balorazioa:

Parke honen jatorria Donostiako landare apaingarrien mintegia bada ere, bertan uztartzen diren mikrohabitat eta landare espezieek gune berezia bihurtu dute, are gehiago gune urbanizatu batean egoteagatik, hiriko biodibertsitatearen gordelekuetako bat bilakatu da.

Hiriko biodibertsitatearen kontserbazioaren ikuspegitik nabarmentzekoa da Parkearen % 74a habitat natural eta seminaturalek osatzen dutela; larreak, zuhaitz-hesiak eta bestelako egitura seminaturalak. Zuhaitz geruza trinkoaz inguratutako larreek garrantzi berezia dute zentzu honetan. Habitat hauen konbinazioak Uliako Haztegien biodibertsitatearen kontserbazio eta emendapenean laguntzen dute, bertako eta inguruko faunari gainera gordeleku eta pasabidea eskainiz. Zuhaitz geruza honek gainera Ulia menditik datozen basoetako zuhaitz geruzarekin bat egiten du, baso hauen arteko lotura ekologiko potentziala ahalbidetuz. Horrez gain, zuhaitz-hesiak hiriarekiko oztopo akustiko eta bisual gisa funtzionatzen du. Honek hiria hautemateko moduan eragiten gaitu, hiri barruan egonik ingurune natural batean gaudela sentiaraziz. Hau honela izanik, gune berde honek hiritarrengan positiboki eragiteko ahalmen handia dauka, eragin horiek arlo ezberdinetan adierazi daitezkeelarik: ingurugiroarekiko edo ekologiarekiko kontzientzian, bisitarien arteko lotura sozial indartsuagoen sorreran eta hiritarren osasun mental eta fisikoan beste batzuen artan.

Landare konposizioari erreparatzen badiogu, eremu txiki honetan dibertsitate altua gordetzen dela onartu behar da. 60 zuhaitz eta zuhaixka espezie baino gehiago aurkitu daitezke. Bertako espezieez gain, ia kontinente guztietako espezieak ikusi daitezke, horietako espezie batzuk gainera inguruko lorategietan arruntak ez direnak, hala nola: *Erytrina crista-galli, Lagerstroemia indica* edota *Jazmiun meznyi* espezieak. Horrez gain, aipatzekoak dira Uliako haztegian aurkitzen diren *Buxus* generoko aleak, lorategietan ikustera ohituta ez gauden tamaina hartzen dute, 3 metro ingurukoak dira alegia. EAEko Espezie Mehatxatuen Katalogoan barneratuta dauden espezieak ere aurkitzen dira, landareen kontserbazioaren ikuspegitik garrantzi berezia emanez inguru honi: *Taxus baccata* eta *Ruscus aculeatus* espezieak dira horiek, biak *Interes bereziko* gisa sailkatuak. Laburbilduz, goian aipatutako mikrohabitaten uztartzeak eta horien landare konposizio anitz eta bereziak, hiri barruan, ekosistema berri eta aberatsa garatzea baimendu du.

Hau honela izanik, ezin da ahaztu Uliako haztegiak lorategi botaniko gisa funtzionatzeko duen gaitasuna: espezieen barietate anitza, parkearen antolamendua (bidexkak, zelaiak, bankalak, landare-hesiak…), landareen hazkuntzarako negutegiak, kokapena… honek hiriari dakarzkion onurekin (hiriko landarediaren kontserbazioa eta ikerketa lanak aurrera eramateko aukera, bisitariak erakarri eta dibulgazio lanak egiteko aukera, etab.). Ekosistema berri honi gainera balio historikoa gehitu behar zaio, Donostiako Udal landare haztegiena eta honen azpian aurkitzen diren Buskando eta Sorobordako ur deposituena alegia. Azken finean, ekosistema berri hau gure ondare natural eta kultural baliotsua bilakatu da.

Uliako haztegien landaredi-mapa.

Uliako haztegietako aisialdirako larretako bat.

KUDEAKETA PROIEKTUAK

JAIZKIBEL KONTSERBAZIO BEREZIKO EREMUAN (KBE) DAGOEN MARTITXERREKAKO ETA BERE ARRO HIDROLOGIKOKO HABITAT NATURAL ETA SEMINATURALEN ETA FLORA ETA FAUNA MEHATXATUAREN ERRESTAURAZIO ETA KONTSERBAZIO-EKINTZAK (KONTSERBAZIO BEREZIKO EREMUA ES2120017) 2015-2016

Finantzazioa: Hondarribiko eta Eusko Jaurlaritza

Arduradunak: Anaïs Mitxelena, Leire Oreja eta Joseba Garmendia
Kolaboratzaileak: Ana García, Josune Arakistain eta Jone Arizti

Jaizkibelen dagoen Martitxerrekako arro hidrologikoan 92/42/CEE Habitat Zuzentarauaren I. eranskinean dauden zenbait habitat errestauratzeko eta Zuzentarau berdineko II. eranskinean zein arriskuan dauden espezieen Euskadiko zerrendan «Kaltebera» bezala dagoen *Woodwardia radicans* iratze mehatxatua babesteko ekintzak burutu dira. Bide batez, arro honek gordetzen dituen balore naturalen berrikuspena egin da bertan dauden hezegune ezberdinak kartografiatuz eta hauen inbentario floristiko zein herpetologikoak eginez. 2015-2016 urteetan gauzatu da proiektu hau eta honen helburuetako bat 2011ean Hondarribiko Udalak Jaizkibelen hasitako berreskurapen ekintzei jarraipena ematea izan da.

Bi urte hauetan ondoren zehazten diren ekintzak burutu dira: 1) *Buddleja davidii*, *Hydrangea macrophylla*, *Phitolacca americana* eta *Robinia pseudoacacia* landare exotiko inbaditzaileen kartografia arro guztian eta *Hydrangea macrophylla* guztien ezabaketa; 2) Martitxerrekako ibar-basoaren berreskuratzea pinuen mozketa/eraztunketak eginez eta bertako zuhaitzen landaketa mistoak eginez; 3) Jaizkibelgo *Woodwardia radicans* iratze nukleoa babestea inguruan landaketak eginez; 4) Arro guztiko iturri, hezegune eta mikrohezegune nagusien identifikazio, kartografia eta inbentariatze floristiko zein herpetologikoa; 5) Arriestuetako Iturriaren berreskurapena bertako sedimentua kenduaz eta gainezkabidea eraikiaz; eta azkenik 6) Dibulgazio eta formazio ekintzak: hitzaldi bat, publiko ezberdinari zuzendutako irteera eta landare exotiko inbaditzaileei buruzko triptikoa.

Eginkizun guzti hauetatik ateratako emaitza eta ondorioak honako hauek izan dira:

1. Landare exotiko inbaditzaileen presentzia handia da arro guztian zehar, bereziki *Phitolacca americana* eta *Robinia pseudoacacia* espezieena. *Hydrangea macrophylla* ezabatzeko lanak egin dira, dena den ikusi beharko litzateke nola ebolutzionatzen duten.

2. Pinu mozketak eta eraztunketak eta bertako zuhaitz-zuhaixken landaketak behetik azpitik hazten ari den ibar-basoaren berreskurapenerako ekintza faboragarriak izan dira. Landaketen gehiengoa ondo sustraitu eta hazi da.

3. *Woodwardia radicans* iratzearen inguruan landatutako zuhaitzak ongi hazi dira. Iratzeari egindako bisitaldiek erakutsi dute populazioaren fronde kopurua aldakorra dela.

4. 15-20 bat hezegune orbain kartografiatu dira: askak, betelanak, esfagnadiak, ihidiak, itsaslabarrak, iturburuak, kunetak, lezkadiak eta putzuak. Denera 71 landare espezie eta, 4 anfi-

Moztutako pinua, enborrarekin zatiak egin eta pilaketak eginda, faunarentzat gordelekuak sortzeko helburuarekin, Martitxerreka.

Hortentsiak (*Hydrangea macrophylla*) loretan, Martitxerreka.

Langileak hortentsiak erauzten, Martitxerreka.

2016ko udaberrian, Martitxerrekara egindako irteeraren geldialdietako batean.

bio eta narrasti behatu dira. Era berean, Jaizkibelgo flora mehatxatuaren ezagutza handitu da bertan topatutako *Narcissus bulbocodium*, *Pinguicula lusitanica* eta *Juncus acutus* nukleo berriekin.

5. Arriestuetako Iturriak bere ura jasotzeko kapazitatea %75ean handitu du. Gainera, sedimentu eta egur soberakinekin anfibioentzat gordeleku ezberdinak egin dira.

6. Dibulgazio eta formazio ekintzek erakusten dute herriko jendeak baduela Jaizkibelek gordetzen dituen balore natural/kulturalak ezagutzeko gogoa, dena den, aldez aurretik difusio saio landua egitea ezinbestekoa da ekintza hauek arrakastatsuak izan daitezen.

Hondarribian dauden landare inbaditzaileei buruz egindako triptikoa.

92/43/CEE ZUZENTARAUKO I. ERANSKINEKO LEHENTASUNEZKO HABITATEN ETA EAEKO LANDARE MEHATXATUEN KATALOGOAN BARNERATURIKO ESPEZIE MEHATXATUEN KONTSERBAZIORAKO LANAK AIZPORAUNDIN ETA ERRAMUDI ERREKAN

Finantzazioa: Hondarribiko Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia

Arduradunak: Anaïs Mitxelena, Leire Oreja, Iñaki Sanz-Azkue eta Yoana García
Kolaboratzaileak: Ibai Olariaga eta Iñaki Sanz-Azkue

Jaizkibel Kontserbazio Bereziko Eremuan dauden Aizporaundiko *Cladium mariscus* hezegunea 92/42/CEE Habitat Zuzentarauaren II. eranskinean dagoena eta Erramudi erreka errestauratzeko ekintzak burutu dira. Bi leku hauetan, hurrenez hurren *Thelypteris palustris* eta *Vandenboschia speciosa* iratze mehatxatuak daude eta hauek jarraitzeko ekintzak ere burutu dira. Iratze biak Espezie Mehatxatuen Euskadiko Katalogoan daude, lehena «Galzorian» eta bigarrena «Kaltebera» kategorian.

Bide batez, bi leku hauetan aurretik hasitako berreskurapen ekintzei jarraipena eman zaie, eta ekintza hauetan jasotako datuekin konparaketak eginez *Cladium mariscus* hezegunearen eta iratze berezien bilakaera nolakoa den ikusi ahal izan da.

Aizporaundin kokatzen den *Cladium mariscus* hezeguneari dagokionez 2016. urte honetan ondoren zehazten diren ekintzak burutu dira: 1) *Cladium mariscus* hezegunearen kartografia eta ezaugarrien jasotzea; 2) *Thelypteris palustris* iratzearen kartografia eta egoera jasotzea; eta 3) landare exotikoen ezabaketa lanak.

Erramudiko eremuan aldiz beste honako ekintzak egin dira: 1) *Vandenboschia speciosa* iratzearen zentsua eta kartografia bi saio; eta 2) zuhaitz ezabaketa eta bertako zuhaitz eta zuhaixken landaketak.

Aizporaundin egindako ekintzetatik ateratako emaitza eta ondorioak honako hauek izan dira:

1. *Cladium mariscus* hezegunearen egoera oso ona da: azalera

aurreko urtekoaren berdintsua da 1.055 m^2rekin; *Cladium mariscus* landarearen presentzia asko handitu da eta ez da eremu biluzirik geratzen; *Baccharis halimifolia* landare inbaditzailea oso puntualki ikusi da.

2. *Thelypteris palustris* populazioaren 10 azpinukleo behatu dira, 2014an baino 2 gehiago eta 2015ean baino 1 gehiago. Azpinukleoen egoera ona da, 2015ean bezala jarraitzen dute baino azpinukleo batzuetan ezin izan dira *Thelypteris palustris* guztiak behatu, ez baitzegoen bertaratzeko modurik *Cladium mariscus* landarearen dentsitate altua zela eta.

3. Soilik 10 *Baccharis halimifolia* ale topatu dira eta hauek eskuz erauzi dira.

Erramudin egindako ekintzetatik ateratako emaitza eta ondorioak honako hauek izan dira:

4. 1) *Vandenboschia speciosa* iratzearen kartografian 9 gune topatu dira: 1. saioan 2016ko martxo-apirilean 74 gametofito orbain eta 128 esporofito orbainekin eta 2. saioan 2016ko irailean 78 gametofito orbain eta 125 esporofito orbainekin. 2015. urteko datuekin konparatuz 1. saioan orbain hauen egoerak nabarmen behera egin zuen esporofito fronde asko lehorrak agertu zirelarik, baina 2. saioan errekuperazio tendentzi bat antzematen da.

5. 2) 2015. eta 2016. urte hasieran egindako zuhaitz mozketek errepasoa beharko dute. Mozketen ondorioz eratutako gehiegizko argitasuna saihesteko asmoz egindako zuhaitz landaketak ere errepikatu beharko dira, bereziki erreka ertzean egindakoak.

Thelypteris palustris iratzea.

JAIZKIBEL KONTSERBAZIO BEREZIKO EREMUAN (KBE) DAGOEN TXURTXIPI ERREKA ETA BERE ARRO HIDROLOGIKOKO HABITAT NATURAL ETA SEMINATURALEN ETA FLORA MEHATXATUAREN ERRESTAURAZIO ETA KONTSERBAZIO-EKINTZAK (KBE- ES2120017) 2016-2017

Finantzazioa: Hondarribiko Udala eta Eusko Jaurlaritza

Arduradunak: Anaïs Mitxelena eta Mari Azpiroz

2017an bukatzen den proiektu honen helburu nagusia Jaizkibelen dagoen Txurtxipi errekako eta bere arro hidrologikoko habitat natural eta seminaturalen eta flora mehatxatuaren errestaurazioa eta kontserbazioa da.

2016. urtean egindako ekintzak ondoren laburbiltzen dira:

- Landare exotiko inbaditzailearen kartografia: *Baccharis halimifolia*, *Buddleja davidii*, *Phytolacca americana* eta *Robinia pseudoacacia* landare inbaditzaileak kartografiatu dira.
- Landare exotiko inbaditzailearen erauzketa: aurretik kartografiatutako landare exotiko inbaditzaileen ezabaketa egin da, hauek ez direnez leku hezeetan topatu tratamendua herbizida bidezko hostoen gaineko pulberizazioa izan da.



Landare exotiko inbaditzaileen kokapena Txurtxipin, 2016.

- *Cladium mariscus* formazioaren azterketa: 92/42/CEE Habitat Zuzentarauaren I. eranskinean 7140* kodearekin dagoen hezegune honen kartografia egin da. Formazio honetan ale gutxiko 5 azpinukleo ezberdindu eta 33m^2-ko azalera duela kalkulatu da. Urtean zehar egindako bisita ezberdinak baliatuz landare inbentarioa egin da eta 50tik gorako espezie zerrenda osatu da.

2017. urtean egin beharreko ekintzak honako hauek lirateke:

- *Pinus pinaster* aleen bakanketa eta bertako basoa berreskuratzea: *Pinus pinaster* zuhaitzaren 50 hektarea daude. 2016an Gipuzkoako Foru Aldundia errekatik urrunago dauden pinuak

Vandenboschia speciosa iratzearen frondeak, Jaizkibel.

N*arcissus bulbocodium* landarea, Jaizkibel.

bakantzen jardun da. Jaizkibelgo Gestio Planak erreka ertzaren alde bakoitzean 15 metroko banda errestauratzea proposatzen du. Hau horrela izanik, 2017an Txurtxipi erreka ertzean dauden *Pinus pinaster* bakanketak egingo dira: 1) kontu berezia izango da landare mehatxatuen inguruan; 2) mozketen kasuan egur hila bertan utziko da zutik zein etzanda eta 3) beharrezkoa dela ikusten bada, bertako basoaren adierazle diren zuhaitz eta zuhaixken landaketak egingo dira.

- Dibulgazio eta kontzientziazio ekintzak: 2017an egindako lanen berri emango da hitzaldi eta irteera banaren bitartez. Irteera auzolan moduan antolatuko da, gune hezean denboraleen ondorengo zakarrak ertz batean bilduz (gehienbat egurrak) eta ekintzak egin direneko lekuak erakutsiz habitaten eta landare mehatxatuen garrantzia goraipatuz.

TRABAJOS DE RESTAURACIÓN DEL BREZAL COSTERO EN LA ZEC ULIA, ES2120014

Financiación: Ayuntamiento de Donostia

Responsables: Maialen Arrieta, Maddi Otamendi y Anaïs Mitxelena

El brezal seco costero (4040*) ocupa14 ha en la ZEC de Ulia (el 34% de su área total), y sumándolo con la superficie que ocupa en Jaizkibel, supone el %27 de este hábitat para la CAPV. Debido al gran valor ecológico de este hábitat, la eliminación de la flora alóctona y ruderal que lo invade es una de las medidas principales de conservación que se recogen en el DECRETO 357/2013. Sabemos que la pérdida de hábitats y las

Trabajadores realizando trabajos de erradicación de ejemplares de B. hamilifolia en Ulia a principios de septiembre.

Zona donde se aprecian ejemplares de Baccharis halimifolia cortadas y secas a principios de noviembre.

especies invasoras, son las principales razones de la pérdida de la diversidad biológica mundial, por lo que con el fin de conservar los hábitats naturales, diferentes administraciones de la CAPV están llevando a cabo trabajos de erradicación de las especies invasoras, así como, *Cortaderia selloana, Reynoutria japonica, Baccharis halimifolia*…

El desarrollo de este proyecto debe entenderse como el seguimiento de estas actuaciones, con el fin de conservar los brezales secos costeros de la ZEC de Ulia.

Durante la campaña de 2016 se ha seguido trabajando en la misma línea que en la anterior campaña, siendo el objetivo principal la erradicación de las plantas invasoras. La erradicación de dichas plantas se ha centrado con mayor ímpetu en la especie *Baccharis halimifolia* y para ello se ha utilizado como base la cartografía detallada de especies invasoras realizada en 2015.

A finales de mayo se ha realizado el seguimiento a los trabajos de erradicación realizados en 2015, obteniendo resultados positivos, ya que se han estimado bajas tasas de rebrote, a excepción de *Hidrangea* sp., la cual ha rebrotado al 100%. Partiendo de estos resultados, en septiembre se ha realizado el repaso de dichas zonas donde se han observado los rebrotes. Asimismo, también se han realizado trabajos de erradicación de las plantas invasoras en nuevas zonas, en las cuales se han tratado cientos de ejemplares de la especie *Baccharis halimifolia*. El resultado de estas actuaciones se valorará la siguiente primavera.

KOSTAKO TXILARDIAREN LEHENGORATZEA DEBA-ZUMAIA TARTEKO ITSAS-ERTZEAN

Finantzazioa: Zumaiako udala eta Eusko Jaurlaritza
Arduradunak: Leire Oreja, Maialen Arrieta eta Mari Azpiroz

2014an martxan jarri zen proiektu honen xedea Deba-Zumaia Tarteko Itsasertzeko Biotopo Babestuan (ES212016) aurkitzen diren kostako txilardiak (Habitat Zuzentarauko lehentasunezko habitata 4040* kodearekin) lehengoratzea da, eta bide batez, habitat honetan bizi diren hainbat espezien kultiborako protokoloak martxan jartzea.

Helburu hau lortzea erronka handia izan da, izan ere, habitat honetako espezie egituratzaileen landare ekoizpen handia lortu baita, bertako landaretik jasoko hazitik abiatuz. Egun 600 *Helychrisum stoechas*, 500 *Anthyllis vulneraria*, 300 *Genista occidentalis*, 1.702 *Erica vagans* eta 23 *Rhamnus alaternus* ale daude mintegian.

Hozitutako *Helychrisum stoechas* landareak.

2107ko otsailean, hazitik lortutako landareak itsas-ertzean landatuko dira, txilardien kontserbazioegoera hobetuz.

Mintegiko *Anthyllis vulneraria* landareak ontzietan.

GOIERRIKO ESKUALDEAN ESPEZIE INBADITZAILEEN ERRADIKAZIORAKO LANAK (2011-2016)

Finantzazioa: Goierriko Garapen Agentzia (GOIEKI)
Arduradunak: Mari Azpiroz, Yoana Garcia eta Mikel Etxeberria
Kolaboratzaileak: Ana García, Gabone Iturralde, Mikel Martínez eta Joseba Lizarralde

2010ean hasi zen proiektu honen helburu nagusia Goierrin ibaiertzean eta inguruetan flora inbaditzailea kontrolatzea/erauztea da. Proiektua Goierriko 18 udalerrietan gauzatzen ari da.

Kontrol/erauzketa lan hauetan ibai-arroan presentzia nabaria duten 4 espezie landu dira gehienbat: *Reynoutria japonica*, *Helianthus* sp, *Cortaderia selloana* eta *Buddleja davidii*.

2012az geroztik egindako erauzketa lanak eraginkorrak izan direla ikusi da. Bereziki, lehenego urteko lanak izan dira eraginkorrak eta hurrengo urteetako lanekin populazioak kontrolpean egotea lortu da, izan ere, eremu dentsoak osatzen dituzten landareen tamaina asko murriztu da. Bestalde, aipatzekoa da historikoki ibai-ertzetan presio antropikoaren eraginez ibaiak beren jarraiera eta naturaltasuna galtzen joan direla, ondorioz paisaia fragmentatzen joan da bertako landarediaren galeran. Ibai-ertzeko basoaren egoera txarrak espezie inbaditzaileen hedapena errazten

2010ean espezie inbaditzaileen presentzia handia zegoen bi eremu hauetan gaur egun ale solteak bakarrik ikus daitezke.

du. Proiektu honetan landare espezie arrotz inbaditzaile hauek erauzteaz gain ibai-ertzen kontserbazio egoera hobetzeko ibar basoaren leheneratzean dihardugu zuhaitz landaketak eginez ibai-ertzean. Horrela, 2016 urtean zehar 661 zuhaitz eta zuhaiska inguru landatu dira eskualdeko Oria ibaiko eta bere azpi-arroetako ibai-ertzetan.

TOLOSALDEAN ESPEZIE INBADITZAILEEN ERRADIKAZIORAKO LANAK (2012-2016)

Finantzazioa: Tolosaldea Garatzen Garapen Agentzia
Arduradunak: Mari Azpiroz eta Yoana Garcia
Kolaboratzaileak: Ana García, Gabone Iturralde eta Mikel Martínez

Tolosaldea Garatzen eta Aranzadi Zientzia Elkartea 2012 urtetik ona ibai-ertzeko 4 landare inbaditzaileen erauzketa/kontrola eta ibai-ertzen berreskurapena erronka dituen ekintzak bideratzen ari da. Tolosaldean *Reynoutria japonica, Buddleja davidii, Helianthus* sp eta *Cortaderia selloana* landare espezie inbaditzaileen presentzia ugaria da batez ere ibai-ertzetan. Proiektu honen helburuak hauek dira: flora inbaditzailearen intzidentzia ezagutzea eta honen kontrol/erauzketarako lanak burutzea, ibar-basoaren berreskurapena eta biztanleria arazoaz jabe egitea eta sentsibilizatzea.

2016ean gauzatu den fase honetan garrantzia berezia eman zaie Araxes ibaia eta Leitzaran ibaia Kontserbazio Bereziko Eremuei. Bertan egin diren erauzketa ekintzak zehatzagoak izan dira ingurunean asaldadura txikiena izan dezaten. Bestalde, Araxes eta Leitzaran Kontserbazio Bereziko Eremuetan landare espezie inbaditzaileak bere lurretan zituzten jabedunekin harremanetan jarri gara bertan ere erauzketa lanak egin direlarik.

Lau espezieak kontuan hartuz ondorio nagusiena espezie hauek gehienbat Oria ibaian agertzen direla da. Oria ibaiko ibai-ertzako landarediaren egoera egokia ez izatean landare inbaditzaileek bertan finkatzeko erraztasun handiak dituzte. Orokorrean, Oria ibaian lau landare inbaditzaile hauen presentzia ugaria da eta aldiz, Oria ibaiaren azpiarroetan espezie hauen presentzia (azalera) txikiagoa da eta adibidez Leitzarango kasuan, ale solteak besterik ez dira aurkitu. Argi dago ibai-ertzeko landarediaren egoera hobea den lekuetan espezie hauek egoteko aukera txikiagoa dela. Beraz, horretan datza ibai-ertza berreskuratzearen garrantzia bertako habitat berreskuratuz.

Iruran ibai-ertzeko bi aldeetan egin ziren landaketak.

AIAKO HARRIA-URUMEA KBE-EN ARTEKO HARANETAN BIOANIZTASUNAREN KONTSERBAZIORAKO EKINTZAK: LANDARE EXOTIKO INBADITZAILEEN ERAUZKETA

Finantzazioa: Hernaniko Udala

Arduradunak: Yoana García eta Mari Azpiroz

Egitasmoaren helburu nagusia Aiako harria eta Urumea ibaiaren artean kokatzen diren haranetan bioaniztasunaren mesedetan kontserbazio ekintzak aurrera eramatea izan da, hiru helburu garbirekin: (1) bertako bioaniztasuna indartzea, (2) KBEen arteko konexio bideak (korridoreak) sendotzea putzu sare bat egokituz, eta azkenik (3) bertako ibar-basoen berreskurapena ahalbidetu landare exotiko inbaditzaileak erauziz eta bertako landaredia ezarriz.

Proiektu honetan Botanika eta Herpetologia Sailek parte hartu dute. Ondoren Botanikari dagozkion lanak azaltzen dira:

Landare inbaditzaileen intzidentzia neurtzea

Landare espezie inbaditzaileen egoera aztertu da. Espezie hauen banaketa ezagutzea eszinbestekoa izan da ondorengo kudeaketa (kontrol lanak) antolatu ahal izateko.

Espezie hauek izan dira kartografiatutakoak: *Cortaderia selloana*, *Reynoutria japonica*, *Buddleja davidii*, *Crocosmia* x *crocosmiiflora*, *Phytolacca americana* eta *Phyllostachys* sp.

2015. urtean lehen aldiz egin zen kartografia lan hau Hernaniko Udalerako. Espezie hauetako batzuk ibar-basoa erabat ordezkatzen zutela ikusi zen eremu batzuetan.

2016. urtean kartografia lanak errepikatu dira. Batetik 2015. urtean tratatutako tokiak berriro ere bisitatu dira, landarea hilik edo bizirik zegoen ikusi ahal izateko. Kasu gehienetan landare horiek bizirik aurkitu dira baina dentsitate askoz txikiagoan. Beraz, lokalizazio horiek mantendu egin dira berriz ere tratatuak izateko (zegozkien garaian). Bestetik, nukleo berriak aurkitu badira horiek ere markatu egin dira, kartografia lana urtetik urtera zehatzagoa bilakatuz.

Crocosmia x crocosmiflora espezie inbaditzailea Hernaniko ibar-basoan.

Crcosmia x crcosmiflora espeziea eskuz erretiratzen.

Erradikazio/kontrol lanak

Tratatutako espezieak ondorengoak izan dira: *Cortaderia selloana*, *Reynoutria japonica*, *Buddleja davidii* eta *Crocosmia* x *crocosmiiflora*.

2015. eta 2016. urteko uztaila eta irailean burutu dira espezie hauen tratamenduak. 2015. urtean metodo kimikoa eta mekanikoak konbinatu ziren eta 2016. urtean berriz metodo mekanikoa bakarrik erabili da, Hernaniko Udalak plazaratutako *Udalerri osoan herbizidak ez erabiltzearen aldeko deklarazio instituzionalaren* ondorioz. Honek 2016ko lanak motelagoak izatea ondorioztatu du.

Tratamenduak ahalik eta eraginkorrenak izate aldera Urumea ibaiaren goi ibilguan hasi ziren (Hernanin) eta bi urte hauetan Epele

auzoraino iritsi dira espezie batzuen kasuan. Kasu gehienetan oso zaila da espezie inbaditzaileen nukleoak tratamendu bakarrarekin desagerraraztea, baina urtetik urtera estaldura txikiagoa aurkezten dute.

Ibar basoen errestaurazioa

Ale hauek tratatu edota erauzi diren eremuak ekologikoki berreskuratu nahi badira ezinbestekoa da, ahal den heinean, gune horietan bertako espezieen zuhaitzak landatzea. Landaketa berriek espezie inbaditzaileen hazkuntza oztopatu, espezie inbaditzaileen birkolonizazioa eragotzi eta berreskurapen ekologikoa bermatuko dute. Gauzak horrela haltza eta sahatsen landaketak burutu dira 2016ko neguan zehar.

SEGUIMIENTO DE LA FLORA ALÓCTONA INVASORA EN LA FUTURA CONCESIÓN MINERA SITUADA EN EL MUNICIPIO DE ANDOAIN

Financiación: FYM Italicementi Group

Responsables: Mari Azpiroz, Yoana García y Mikel Etxeberria
Colaboradores: Ana García, Gabone Iturralde y Mikel Martínez

Este proyecto se ha llevado a cabo en el municipio de Andoain en la zona llamada Azpikola-Aizbeltz en una altitud entre 50-300 metros. Es una zona abandonada de una antigua cantera donde hoy en día la vegetación ha ocupado gran parte de los suelos desnudos creados por las extracciones. El área de estudio ocupa casi 16 hectáreas. Aunque el número de especies alóctonas en nuestro territorio es muy alto, en el caso del área de estudio, se ha priorizado el detectar las especies alóctonas más problemáticas. En el área de estudio se han detectado 10 especies alóctonas. De las cuales 8 se consideran invasoras.

De las 10 especies encontradas en el área de estudio, 5 (*Buddleja davidii, Cortaderia selloana, Robinia pseudoacacia, Platanus hispanica* y *Dittrichia viscosa*) ocupan una distribución amplia con muchos ejemplares de distintos tamaños. Estas especies han ido colonizando el lugar especialmente al encontrar suelos desnudos sin presencia de vegetación nativa. La erradicación de estas especies supone un arduo trabajo ya que son especies que se propagan por semilla ocupando grandes áreas como es el caso de esta antigua cantera. En el caso de las especies *Reynoutria japonica*, *Crocosmia crocosmiiflora* y *Erigeron karvinskianus*, su presencia es mínima y se han localizado las poblaciones antes de su expansión, siendo así fácil y poco costosa su erradicación. A la vista de esto, queda claro que la mejor opción para combatir las especies invasoras consiste en detectarla en las etapas tempranas de la invasión actuando con rapidez sobre las primeras poblaciones, capaces de establecerse permanentemente.

Se han propuesto tratamientos para la erradicacion de estas 10 especies en la zona de estudio para realizarlas en distintas campañas a partir de 2017.

Presencia de *Cortaderia selloana* y *Buddleja davidii* en la zona de estudio.

Presencia de *Cortaderia selloana*, *Buddleja davidii* y *Dittrichia viscosa* en la zona de estudio.

KUDEAKETA ETA INGURUGIROAREKIKO SENTSIBILIZAIOA

ZARAUZKO DUNETAKO LANDAREDIA. MINIGIDA 2

Finantzazioa: Zarauzko Udala
Arduradunak: Mari Azpiroz, Yoana García, Maialen Arrieta, Joseba Garmendia eta Leire Oreja
Kolaboratzaileak: Josepo Teres eta Arkamurka Natur Taldea

Zarauzko udalak finantzatuta 2106ean zehar Zarauzko dunetako landarediaren gida diseinatu da. Gida honetan Zarauzko dunetan ikusi ahal izango dituzun landareak erakutsi nahi izan dira, denok ere Zarauzko altxor hau ezagutu, maitatu eta zaindu dezagun.

Minigidaren portada eta fitxetako bat.

ORDIZIAKO OIANGU PARKEAREN BALIO NATURALAK KONTSERBATU, LEHENERATU ETA JENDARTERATZEA (III. FASEA)

Finantzazioa: Ordiziako Udala // Arduradunak: Yoana García
Kolaboratzaileak: Astronomia, Ornitologia eta Herpetologia Sailak, Jorge Gonzalez biologoa eta Mikel Olano basozaina

2014ean Botanika Sailak eta Ordiziako Udalak Oiangu Parkeko balio naturalak areagotu eta horien zabalkundean lan egiteko lankidetza hitzarmena sinatu zuten. Ordutik hona, urtetik urtera, hainbat dira inguru honetan aurrera eramaten diren ekimenak. Ondoren 2016. urtean zehar egindako lanak deskribatzen dira:

INGURUNE NATURALAREN KONTSERBAZIOA

Flora espezie exotiko inbaditzaileen kontrola

2013an hasitako lanei jarraipena eman zaie. Udalerriko espezie exotiko inbaditzaileen kartografia berritu da. Ondoren, beharrezkoa kontsideratu den kasuetan eta landareen loraldian oinarrituta, oraindik ere bizirik mantentzen ziren aleak tratatu dira ezabatzeko helburuarekin. Landare exotiko inbaditzaileak tratatzeko metodo kimiko edota mekanikoak erabili dira. Espezie exotiko inbaditzaile hauek tratatu dira: *Buddleja davidii, Reynoutria japonica,* eta *Cortaderia selloana.*



Oianguko zuhaitz lepatuen kontserbazioa

Oiangu Parkean badaude balio ekologiko, paisajistikoko eta kultural handiko zuhaitz lepatuen bi eremu. Zuhaitz hauek zaharrak dira eta horietako askok egoera ahula aurkezten dute (enbor hutsak, adar punta lehorrak, apurtutako adarrak, etab). Parke publiko hau aisialdira bideratua egoteagatik eta zuhaitz hauen egoerak sortzen duen arriskuagatik zuhaizti hauek arreta berezia eskatzen dute. Horregatik, zuhaitz bakoitzaren egoera baloratu eta, kontserbazioa eta segurtasuna bermatzeko Parkera bisitak egin dira tokian tokiko erabakiak hartuz. Egurra moztea beharrezkoa izan den kasuetan egur hau parkean bertan geratzea lehenetsi da.

Zuhaitz eta zuhaixken gidaliburua

Helburua Oianguko natur balioen zabalkundea eta ingurumenarekiko sentsibilizazioa izanik, Oiangu Parkean aurkitu daitezkeen zuhaitz eta zuhaixken gida txiki bat sortu da. Horretarako inguruko 26 espezie esanguratsuenak identifikatu dira eta horiek marrazki bidez adierazi dira liburuxka batean, bide batez euren ezaugarri batzuk era ulerterrazean adieraziz.



Oiangun egindako ekintzen argazkien zabalkundea

Ordiziako Udala Oianguko natur balioen zabalkundean lanean hasi zenetik gaur arte izaera ezberdineko ekintza ugari egin ditu talde ezberdinekin elkarlanean: irteerak, auzolanak, hitzaldiak, tailerrak, astronomia saioak… Oianguk ingurumenaren sentsibilizazioan duen indarra zabaltzearren ekintza guzti horien argazkiak erakusgai ipini dira Parkean bertan. Bide batez, Oianguko eraikinetako bat paisaiarekin integratzen laguntzeko erabili dira argazki hauek.

Parkeko habi-kutxen jarraipena eta hegaztiei eraztuna ipintzeko saioat

Ekimen hau Aranzadi ZEko Ornitologia Sailak aurrera eraman du. Bertan 2014tik Oiangun dauden habi-kutxen jarraipena egin da (hutsik edo okupatuak zeuden ikusi) eta hegaztien eraztunketa zientifikoa burutu da.

Naturari buruzko erakusketa Barrena Kultur Etxean

Barrenako erakusgela baliatuz maiatzean «Euskal Herriko Anfibio eta Narrastiak» erakusketa ikusgai egon da, azken egunean erakusketa honen bisita gidatua eskaini delarik.



Txorien kantuak identifikatzen ikasteko irteera

Oianguko txorien kantuak identifikatzen ikasteko irteera egin da. Irteera honetan, lehenengo 30-40 minututan ordenagailua eta bozgorailuez lagunduta txorien kantuak entzun ziren baita horien inguruko beste azalpen batzuk ere. Ondoren Oianguko hariztietan barrena txorien kantuak entzutera irten zen taldea.

Astronomia saioa

Azken urteetako astronomia saioen arrakasta ikusirik 2016. urtean saio hau hirugarren aldiz gauzatu da planteamendu berri batekin. Egun berean bi saio egin dira: lehen saioan umeentzako tailer bat aurrera eraman da eta bigarrena, zerua behatzeko gaueko saioa izan da.

Irteera: «Ugaztunak. Oianguko fauna ikusezina»

Jorge Gonzalez Biologoa gonbidatu da Ordiziara eta goizeko irteera batean zehar Euskal Herriko eta bereziki Oiangu inguruko ugaztunak, euren bitxikeriak eta garrantzia ezagutzeko aukera izan dugu.

ITSASONDOKO INGURUNE NATURALAREN ETA LANDA EREMUAREN KONTSERBAZIORAKO EKIMENAK HERRITARREN PARTE HARTZEA BULTZATUZ 2013-2015

Finantzazioa: Itsasondoko Udala

Arduraduna: Yoana García
Kolaboratzaileak: Jon Ander Galarraga biologoa eta Jesús Arana

2008. urtetik gaur arte Itsasondoko Udala Botanika Sailarekin elkarlanean udalerriko biodibertsitatearen kontserbazioan lanean ari da. Testuinguru honetan, 2016. urtean aurreko urteetan abian jarritako lan-ildoak mantendu, sendotu eta lan-ildo berriak martxan jarri dira.

Murumendi Interes Naturalistiko Gunean eta bere inguruan bertako basoen berreskurapena

Duela urte batzuk Murumendi Interes Naturalistiko Gunea eta herri inguruko beste lur-eremu batzuk ekologikoki berreskuratzeko esfortzu berezia egiten hasi ginen; Udalak, lurrak erosketa edo akordio bidez eskuratuz eta beharrezkoa zen kasuetan pinu landaketak erretiratuz eta bertako zuhaitz eta zuhaixkak landatuz. Azken urte honetan *Pinus radiata* espeziearen landaketak zeuden hiru partzela eskuratu ditu Udalak. Egun, Murumendi Interes Naturalistiko Gune inguruko 21 partzelen eta herri inguruko beste 4 partzelen kudeaketaren arduraduna da Udala eta guztietan bertako basoa leheneratzea du helburu. 2016. urtean, aurreko urteetan lanean hasitako partzelen jarraipen lanak burutu dira, eta eskuratu berri diren partzeletan bertako basoa berreskuratzeko lanei hasiera eman zaie. Lan hauen koordinazioa, jarraipena eta aholkularitza Botanika Sailak aurrera eramaten du.

Ibai-ertzeko habitaten errestauraziorako mantentze lanak

2013. urtean ibai-ertzeko haltzadien lehengoratzearekin lotuta arreta berezia ipini zen RQI (*Riparian Quality Index*) indizearen arabera kategoria *eskasa* eta *oso eskasean* sailkatutako errekastoetan. Horrela Zubiñerreka errekastoaren ertzean aurreko urteetako landaketak berrikusi eta ale batzuk gehiago landatu dira, denera 100 sahats.



Murumendi inguruan, Itsasondoko Udalak Aranzadirekin elkarlanean kudeatzen dituen lur-sailak.

Flora exotiko inbaditzailearen kontrola eta erradikazioa

Badira hainbat urte Itsasondon flora exotiko inbaditzailearen kontrol eta erradikazio lanetan hasi ginela. Urtetik urtera egoera faboragarriagoa bada ere, lan hauek jarraipena izatea ezinbestekoa da.

2016. urtean Itsasondoko flora exotikoaren banaketa-mapa berritu da; landare espezie hauen nukleo berriak bilatuz, jadanik desagertu diren guneak identifikatuz edota oraindik ere ale hauek mantentzen diren guneak lokalizatuz. Ondoren, eta landareen loraldian oinarrituta, metodo kimiko zein fisikoak konbinatuz landare hauek tratatuak izan dira ezabatuak edo gutxienez kontrolpean izateko helburuarekin. Azkenik, negu honetan, bertako espezieen landaketak burutuko dira landare inbaditzaileen hazkuntza oztopatzeko asmoz.

Tratatutako espezieak ondorengoak izan dira: *Budleja davidii*, *Cortaderia selloana*, *Reynoutria japonica* eta *Helianthus x laetiflorus*.

Bertako fruta-arbolen eta zuhaixken banaketa

Itsasondoko herritarrak euren lurretan biodibertsitatearen aldeko ekintzak burutzeko konpromisoa hartzeko zailtasunak ikusirik, fruta-arbola espezie ezberdinak dohainik eskaini zaizkie herritarrei euren landa-lur zein lorategietan landatzeko. Banatu diren fruta-arbolen barietateak bertakoak dira, izan ere, ekimen honen helburuetako bat bertako barietateak indartzea da kanpokoen aurrean. Fruta-arbolez gain, landare-hesietarako zuhaixkak ere banatu dira.

Herriko hegaztiak ezagutzeko programa

Herriko txikienei herriko biodibertsitatea erakutsi eta ingurumen heziketa lantzeko helburuarekin Itsasondoko herri eskolarekin batera Txoribox

programa aurrera eraman da. Honen ardura Ornitologia Sailak izan du. Era honetan, Itsasondoko umeek Hegaztien munduari buruz ikasteaz gain, habi-kutxak eraiki eta herri inguruan ipini dituzte, eraztuntze-saio bat aurrera eraman dute eta amaieran, txoriek habi-kutxak okupatu ote dituzten aztertu ahal izan dute ere.

Intsektuen garrantziaz jabetzeko jarduera

Herri-eskolako umeekin «intsektuentzako etxeak» eraiki eta herri inguruan ipini dira. Jarduera hau intsektuei eta bere bitxikeriei buruz eta gure ekosistemen kontserbazioan duten garrantziari buruz hitz egiteko baliatu da. Behin azalpenak emanda, «etxea» osatzeko ingurutik egurrak, adarrak, harriak, lurra, etab. bildu dira umeekin batera.

Baratza ekologikoen lehiaketa

Herritarrek euren herriko biodibertsitatearen hobekuntzan ardura hartu dezaten Baratza ekologikoen lehiaketa antolatzen da Itsasondon. Honen bitartez, aurre-abisurik eman gabe gai honetan aditua den taldeak herri-inguruko baratzak bisitatu eta baloratzen ditu. Positiboki baloratzen diren irizpideak inguru

naturalarekin oreka mantentzen laguntzen dutenak dira, hala nola, bertako espezieak izatea, produktu fitosanitariorik ez erabiltzea, konposta egitea, landare-hesiak izatea, etab.

DEBABARRENAKO PAISAIA ETA BIODIBERTSITATEA BALIOAN JARTZEA

Finantziazioa: Debegesa (Debabarreneko Garapen Ekonomikorako Elkartea)
Arduradunak: Mari Azpiroz eta Yoana García

2016. urtean Aranzadi Zientzia Elkartea eta Debegesa elkarlanean hasi dira landare inbaditzaileen erradikazio eta dibulgazioaren arloan.

Debegesa 2011. urtean hasi zen espezie inbaditzaileen erradikazioan lanean URA eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean. Aurten, lan hauei jarraipena eman zaie, oraingoan Aranzadiko Botanika Sailarekin elkarlanean eta erronka berriei aurre eginez.

Hiritargoa inplikatu nahi izan da lan hauetan. Hau da, eskualdeko agente ezberdinak espezie inbaditzaileen erradikazio lanetan laguntzeko ahaldundu egin dira, beraiek izan daitezen espezie inbaditzaileen puntuak jaso eta jarraipen lanak egingo dituztenak. Honekin, herritarrak ingurune naturalaren kontserbazioan sentsibilizatu eta erantzukizunak hartzea bilatzen da, aldi berean administrazioaren erradikazio lanak arinduz.

Debabarrenako ikastetxeetako irakasleei emandako aurkezpena.

Honetarako ezinbestekoa izan da; batetik, landare hauei buruzko informazioa era bateratu batean biltzeko tresna garatzea, eta bestetik; proiektu honetan inplikatuko diren Debabarrenako herritarren biodibertsitatea sarea sortzea. Lehenengoari dagokionez, ezinbestekoa izan da Ornitho web ataria (www.ornitho.eus): Ornitho herritar orori eskainitako zientzia-ataria da, non Euskal Autonomia Erkidegoko natur-informazioa bildu eta zabaltzen den. Proiektu honen baitan, web atari hau landare inbaditzaileen lokalizazioei buruzko informazioa jasotzeko ere egokitu da, eta bere erabilpena zabaldu. Bigarrengoari dagokionez, hau da, agente inplikatuen sarea sortzeari dagokionez, lehenik eta behin lehentasunezko agenteak identifikatu behar izan dira, hala nola, elkarte ezberdinak edota ikastetxeak, eta interesa azaldu dutenen artean proiektuaren nondik norakoak azaltzeko aurkezpen sorta bat eskaini da. Aurrerantzean, lan honi esker, Debabarrenako landare inbaditzaileen erradikazio lanak erraztuko dira, aldi berean herritarrak arlo honetan sentsibilizatuz.

ARGITALPENAK

ARTIKULUAK

GARCÍA, Y. 2016. Bertako basoak auzolanean berreskuratzen. 2.0 aldizkaria, otsaila-apirila.

GARCÍA, Y. 2016. Intsektuen hotelak. 2.0 aldizkaria, maiatza-uztaila.

MITXELENA, A. 2016. Jaizkibel: ondare naturala ezagutuz, ezagutaraziz. Martitxerrekako adibidea. Hondarribia herri aldizkaria. 299: 2016ko urria.

GARCÍA, Y. 2016. Zorionak baratzazain!. 2.0 aldizkaria, azaroa-urtarrila.

GARCÍA, Y. 2016. Bizitzaz betetako altxorra. Santa Ana aldizkaria, Ordizia.

NATUR-GIDAK

Aranzadi Zientzia Elkartea, Botanika Saila, 2016. Zarauzko dunetako landaredia, Iñurritzako Biotopo babestua. Aranzadi Natur-gida txikiak 2.

Aranzadi Zientzia Elkartea, Botanika Saila, 2016. Oianguko zuhaitz eta zuhaixkak. Aranzadi Natur-gida txikiak 3.

Aranzadiko kideak «Biodibertsitatearen lorategian» azalpenak ematen.

IRTEERAK

Izenburua: Zuhaitz eguna Krakoleta mendi taldearekin
Tokia: Donostiako Altza auzoan, Eguzkitza belardia
Data: otsailaren 28
Gidariak: Yoana Garcia Mendizabal eta Maialen Arrieta Aseginolaza

Izenburua: Biodibertsitatearen lorategira irteera
Tokia: Iturrarango Lorategi Botanikoa, Pagoeta (Aia)
Data: Apirilak 23
Gidariak: Joseba Garmendia, Maialen Arrieta eta Yoana García
Aurtengo urtean ere Iturrango Lorategi Botanikoak antolaturiko 14. Landare Berezien Azokan bisita gidatuak antolatu dira, lorategian bertan kokatzen den «Biodibertsitatearen lorategira». Bertaratu diren bisitariak 50tik gora izan dira, eta Euskal Herriko eta inguruetako landare mehatxatuen zein espezie endemikoen inguruan azalpenak entzuteko aukera izan dute. Lorategian bertan topatu ditzakegun espezieen inguruan azalpenak emateaz gain bertaratuek landareak ukitzeko zein usaintzeko aukera izan dute. Bisita gidatuak bi txandatan antolatu dira, euskaraz eta gazteleraz.

HITZALDIAK

Izenburua: «Mintegien garrantzia eta balioa Donostiako hiri plangintza berderako»
Tokia: Koldo Mitxelena Kulturgunea.
Data: ekainaren 20
Hizlariak: Yoana Garcia Mendizabal (Botanika Saila), Ion Garin (Herpetologia Saila), Marko Sierra (Aranzadiko nekazal ingeniaria), Ignacio Javier Larrañaga Urain (Aranzadiko baratzegintza eta lorezaintza saileko ingeniari teknikoa).

Izenburua: «Mintegien garrantzia eta balioa Donostiako hiri plangintza berderako»
Tokia: Okendo Kultur Etxea
Data: ekainak 28
Hizlariak: Yoana Garcia Mendizabal (Botanika Saila), Ion Garin (Herpetologia Saila), Marko Sierra (Aranzadiko nekazal ingeniaria).

Izenburua: «Conservation de la flore menacée du pays basque péninsulaire» / «Hego euskal herriko flora mehatxatuaren kontserbazioa»
Tokia: Jardin Botanique Littoral Paul Jovet (Saint Jean de Luz) / Paul Jovet Lorategi Botanikoa (Donibane Lohitzune)
Data: 14 juin 2016 / 2016ko ekainaren 14
Hizlariak: Joseba Garmendia & Anaïs Mitxelena

FLORA KANTABRIAR-PIRINIARRAREN NAZIOARTEKO XI. BILTZARRA

Bertizko Jaurerria Natur Parkea (Nafarroa), 2016ko uztailaren 4tik 6ra
Botanika Saila

Nafarroako Bertizko Jaurerria Natur Parkeak hartu zuen Bagnères de Luchonen lekukoa Flora Kantabriar-Piriniarraren Nazioarteko XI. Biltzarra antolatzeko.

Biltzarraren XI. edizio honek Aranzadi Zientzia Elkartearen laguntza izandu idazkaritzako lanak aurrera eramateko eta 2016ko uztailaren 4, 5 eta 6an izan zen Bertizko Jaurerria Natur Parkean. Ahozko zein poster formatuko komunikazioak aurkeztu ziren eta horiek Mendizerra hauetako botanikarekin erlazionatutako diziplina guztiak lantzen dituztenak izan ziren: floristika, taxonomia, landaredia, ekologia, kontserbazioa, egokitzapenak, etab. Denera 50 espezialista inguru bildu ginen, unibertsitateetatik, kontserbazioaren inguruan lan egiten duten administrazioetatik, ikerkuntza zentroetatik eta natura babesteko taldeetatik etorriak.

Lehenengo eguna Pedro Mª Uribe-Echebarria, Carlos Aseginolaza, María Salaverría, Iñaki Zorrakin y Xabier Lizaur-i eskainia izan zen, arlo honetan egindako lan handiagatik. Bigarren eguna aldiz D. Pierre Dupont botanikariari eskaini zitzaion. Lehenengo bi egunetako aurkezpen eta eztabaidak mendizerra kantabriar-piriniarretan azken urteetan egindako azken urteetako lorpenak ezagutarazteko erabili ziren. Denera 30 komunikazio aurkeztu ziren poster eta ahozko komunikazioen artean. Saio osagarriak ere eskaini ziren *Instituto Pirenaico de Ecología* (CSIC)-eko Luis Villar Pérez Doktorearen eskutik eta *Conservatoire botanique national des Pyrénées et de MidiPyrénées*-eko Gérar Largier ikertzailearen eskutik.

Hirugarren egunean Larrun mendira irteera egin genuen. Larrun mendira kremailera trenean igo ginen eta gainean mendi honen historiari buruzko azalpenak jaso genituen Larun-Gain Bentako familiaren eskutik. Ondoren, beherantzako bidean mendi honetako ezaugarri eta bitxikeria botanikoei erreparatu genien Mikel Lorda Botanikariaren gidaritzapean.

Botanika Sailetik eskerrak eman nahi dizkiegu bertan parte hartu zuten guztiei eta laguntza eman duten entitate guztiei denon artean Biltzar arrakastatsua posible egiteagatik.
Ondoren Biltzar honetan Botanika Sailak egindako ekarpenak:

Ahozko komunikazioak

- **«Programa WestPyr para la conservación de la flora del Pirineo occidental»**
  Garmendia, J, Müller, J., Breman, E., Gil, T., Arrieta,M., & L. Oreja

- **«Flora y vegetación del monte Jaizkibel»**
  Mitxelena, A., Garmendia, J., Azpiroz, M.

- **«Principales patrones de distribución de plantas vasculares de los Países Catalanes»**
  Otamendi, M. & X. Font (M. Otamendik Universitat de Barcelona-n egindako Masterreko Tesina)

ENTOMOLOGIA

